

Jon Kortazar

**Diglosia eta euskal literatura**

Utriusque Vasconiae

EHUk HB136/99ko ikerketa-proiektuari emanda-  
ko laguntzari esker egindako lana da.

© Jon Kortazar

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2002ko maiatza

ISBN: 84-931632-5-2

Lege-gordailua:

Azala: Ur Apalategi Idirin

Argazkia: Mary Pickford Foundation

Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.

Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

Jon Kortazar

# Diglosia eta euskal literatura



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduri-  
ko *Kritika Literarioa* sailean argitaratzen da

## KRITIKA LITERARIOA

### deritzan sail berri honetaz

Modu sotilenean, “kritika literarioa” izendatu dugu Utriusque Vasconiæ argitaletxearen barnean eratzen den sail berri hau. “Kritika literarioa” eta ez, adibidez, “literatur kritika”. Ezberdintasuna, egotekotan, honako hau bailitzateke: guk egindako aukeran ez duela ikergaiaren izaerak —euskal literatur korpusa— definitzen kritikoon eginbeharra, baizik eta kritikoaren beraren lana ulertzeko moduak. Alegia, ez dela kritika literarioa egiten literatura ikertze soilagatik; ez da nahikoa. Esate baterako, literatura dokumentu historiko gisa erabil daiteke, edota hizkuntzalaritzarako; eta hala gertatu da luzaz. Tradizio filologikoak hainbesteko indarra izan duen eskualde honetan “kritika literarioa” —hots, literaturaren *literaturtasuna* gogoan lukeena, hitz gutxitan adierazteko— gauza berri samarra da, Oihenarten arte poetikoa eta beste salbuespen bakanak baztertuz gero. Doi-doia mende laurdena gaingitzen duke.

Mende laurdenak, urte bat gora urte bat behera, 1975era garamatza, hau da, idazle gazte eta oraindik eze-

zagun bik “literaturaren autonomia” manifestu baten bidez aldarrikatzen duten unera, xede estraliterarioekiko morrontza salatuz. Eta ez da kasualitatea. Izan ere, kritika literarioaren historiak harreman hertsia baitu literatur sorkuntzarenarekin. Elkar bazkatu dutela esan daiteke inor gaitziazteko beldurrik gabe. Eginkizun honetan aitzindari izan den Lasagabaster jaunak, “literaturaren instituzionalizatze prozesua” aipatzen hasten denean (urte haietan), ekintza bikoitza dagi. Alde batetik, literatura giza eginkizun berezia dela defenditzen du, gaineratiko giza eginkizunen baitan serie beregaina osatzen duena, idazleen askatasun sortzailea edo sortzaile-askatasuna bermatuz. Bestalde, eremu zientifiko berri bat zedarritzen du, urteekin kritika literarioan gabiltzan guztiok gureganatu duguna.

Zein dira, bada, giza-zientzia honen oinarrian aurkitzen ditugun galderak eta sail honen argitalpen bakoi-tzak nola edo hala, osoki edo partzialki, behin eta berri-ro pausatuko dituenak? Antoine Compagnoni hartuko nizkioke —*Le Démon de la théorie*, Paris, Seuil, 1998— funtsezko sei galderak:

- Zer den literatura
- Zein den literatura eta autorearen arteko harremana
- Zein den literatura eta errealitatearen arteko harremana
- Zein den literatura eta irakurlearen arteko harremana
- Zein den literatura eta mintzairaren arteko harremana
- Nola ulertu tradizio literarioaren alde dinamikoa (literaturaren historia)

—Nola ulertu tradizio literarioaren alde estatikoa  
(balore literarioa)

Orain arte esandakoaren ulermen maingu batek iradokiko lukeenaren aurka, kritika literarioaren azterketa eremua ez da baina “literatura literarioa” garatu den aro historikora mugatzen. Errepika dezagun nekatu arte: ez du objektuak egiten kritika literarioa, begiradak baizik. Honek esan nahi du literatura beste eginkizun ez-literarioen menpe —izan daitezela erlijioa, politika nahiz hizkuntzaren defentsa— zegoen garaia ere interesgarria dela kritiko literarioarentzat. Axular ez da, berez, literarioa edo ez-literarioa. Aldiz, Axularren irakurketa literarioa egitea zilegi da. Gisa berean, Sarrionaindia modu ez-literarioan irakurtzea ere zilegi da, nahiz idazleak berak bere eginkizunaren kontzientzia literario osoa duen. Zilegi da, esan dugu, baina, hori bai, orduan ez da kritika literarioa izango egiten dena. Guzti honen ondorioa zera litzateke, gure sailean aurkituko direla —hala izan dadila ikerle guztien laguntzarekin— bai literatur joera berrien azterketak bai eta euskal korpus filologikoaren “berreskuraketa-berrirakurketa” literarioak.

Ur Apalategi Idirin  
*Kritika literarioa* sailaren zuzendaria,  
2002ko otsaila.

Lan hau Galiziako lagun guztiei  
eskainia dago: Kikeri eta Loliri,  
Marilar eta Ramoni, Rafisari,  
Arturori eta Irisi, Inmari, Manueli,  
eta Helenari, haiekin ikasitako  
guztiarengatik.

Este traballo vai dedicado a todos  
os meus amigos de Galicia: a Quique e Loli,  
a Marilar e a Ramón, a Rafisa,  
a Arturo e a Iris, a Inma, a Manuel e a Helena,  
por todo o que aprendín con eles



## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	13
2. Literatura, sistema soziala .....	17
3. Literatura eta diglosia .....	25
4. Bederatzi ezaugarri .....	33
5. Literaturaren eta testuaren arteko nahasketa .....	37
6. Testua literaturaren historian .....	45
7. Espazio eta denboraren forma tipologikoaren desoreka .....	47
8. Elementu folkloriko, etnografiko eta mitikoen garrantzia .....	53
9. Filologizatorako joera .....	57
10. Hizkerarekiko ardura neurotikoa .....	61
11. Igurikimen ortzi mugaren falta .....	67
12. Idazleen traiektoria falta .....	75
13. Zentzu ludikoa eta zentzu epikoa aurrez aurre .....	81
14. Figuroaren teoriari zenbait ohar .....	91
15. Etorkizunerako biderik? .....	97

## 1. Sarrera

Aspaldi galdera bat darabilt buruan. Literaturarako hizkuntza bat aukeratzen denean, hizkuntza horrek artistaren lana baldintzatzen du ala ez?

Ni baietzean nago, baina idazleen artean ezezko erantzuna dabilela esango nuke. Batez ere ukapen horrek beste helburu bat betetzen du, esaten denean euskara ez dela gai ez dakit zertarako, demagun “literatura egiteko ez dela gai” esaten dela, orduan baieztapen horren bidez euskarak literaturarako duen gaitasuna azpimarratu egin da. Euskara eta gaztelera, adibidez, egoki dira literatura egiteko diote idazleek. Baina ez da hori orrialdeotan proposatu nahi dudana. Noski egoki direla, baina zer gertatzen da bat aukeratuz gero, aukerak eragina du?

Hizkuntzaren eragina bere zereginen ukatzen dutenek ere garbi dute hizkuntzaren barnean badirela indar bi, badirela joera bi, badirela idazlea hara eta hona erabiliko duten tendentzia bi bere estetika osatzen dutenak: hizkuntzaren tradizioa alde batetik, eta joskeraren moldapena bestetik.

Biek osatzen dute nolabaiteko ainguratzea idazlearentzat.

Tradizioaren gaia benetan esanguratsua da. Hizkuntzak ez du moldatzen estiloa, baina erabilitako tradizioak (idazleak bere lana aurrera eramateko aukeraturiko tradizioak esan nahi dut, idazlearen miresmen puntuak, nolabait deitzeko) bai, neurri batean, beti ere, erabilitako bi-deak nondik nora joan diren agertzen duelako. Beste alde batetik tradizio urria izateak ez du adierazi nahi, bat batean, errazagoa denik norberaren testuetan originaltasuna adieraztea, aurretikoek egin ez dutena egitea errazago egiten zaigulako.

Joskerak ere zeresana du, noski. Adibidez, gogoan dut zenbat aldiz tratatu zen gure historiaren une batean, aditz laguntzaileen errepikapenak nolako eragina dakarkion prosa lanaren erritmoari.

Baina badira hizkuntzaren izaera gramatikalak zeresana duela norberen literaturaren lanean baietsi duten idazleak. Zenbait badira hizkuntzaz aldatu dutenak estiloz edo estetikaz aldatzeko. Eta ama hizkuntza erabili ordez beste hizkuntza batean literatura egin dutenak ere badira: Conraden adibidea dator lehenik burura, baina ez da bakarra. Beckett, Nabokov, Kundera hizkuntzaz aldatu duten idazleen izenak ditugu. Eta mugimendua nagusitzen ari omen den postkoloniala egin den Europa honetan, nahiz eta kasu honetan desberdin gertatzen den kontua, kanpoan jaiotakoek hizkuntza nagusia hartzen dute, alemanera, ingelera, frantsesa, eta hizkuntzak sortzen du kolonizazio berria, agian.

Baina, baietz esango nuke, hizkuntzak norberaren idazkera aldatzen duela.

Beste nabardurarik badu literaturak, joskera eta tradizioaz gain. Adibidez, literaturaren generoek ere zerikusia dute gizarte instituzioa den literaturan. Garbi dago

adibidez, poesiaren generoan norberaren hizkerak garrantzi handiagoa duela idazkera sortzerakoan, nobelan baino. Nobelan, idazleak nahi eta nahi ez, gizartearen hizkuntza agertu behar du, eta nobelan polifonia bilatzen den neurrian, idazlearen hizkuntzatik urruntzen garen neurrian, gizartearen hizkuntzaren eragina nabariagoa da.

Hizkuntza bat aukeratzen denean, edo genero bat, idazlea molde batzuen barnean jokatzera behartua da-goela esateak ez du berez, berebiziko indarririk: historikoa da eragina eta horrela gertatzen da. Ez luke misteriorik behar.


Halaz ere, bide honetatik, hausnarketa honetatik urrunago joateko biderik badago. Galizian oso ezaguna den *Diglosia e texto* Anton Figuroa ikerlariaren bidea hartuz gero, zer esanik eta zer pentsaturik badagoela gure artean esango nuke. Hurrengo lerroetan Anton Figuroaren bidea zein den aztertuko dut eta ondoren nola egoki dakioken euskal literaturari.

## 2. Literatura, sistema soziala

Literaturaren izaera zein ote den ez dago argi, eta batzuentzat ez da erraza adierazten zer den literaturtasuna eta nola agertzen den bere izaera. Zerk egiten duen zerbait literario eta zerk uzten duen beste zerbait literaturatik kanpo. Bada definizio bat, azkena, pragmatikaren aldetik agertzen dena. Literaturak berefikatuz, egiaztatuz ezinezko esaldia darabil. Pertsonaia batek esaten duenean, “eguraldi ederra egiten du gaur” ezin dugu esan egia denik edo gezurra denik, esaldiak bere horretan jarraitzen du, bere barne sarearen barnean azaldu beharreko da, baina ezin da errealitatean egiaztatu.

Hori horrela bada ere, ezaugarriak testu literario oro definitzen du, eta ez du, nahi genukeen bezala, zer den literarioa eta zer ez zehazten.

Baina garbi da literatura instituzio soziala dela, eta Jakobsonek agerturiko literatura komunikazioaren eske-  
ma hau:



aldatu beharra dagoela beste honengatik:

	Generoa	
	Argitaletxea	
Egilea	Idazlana	Irakurlea
	Berrirakurlea	

Eskema biek bere funtzioa dute, batek komunikazio arruntaz ari delako, eta bestea literatur komunikazioaz.

Urteekin, ordea, bigarren eskema horrek ere ez du betetzen literaturaren esparru osoa. Eta Even-Zohar polisistemen teoriaren aitaren esanetan, literatura merkatuaren menpe geratzen den neurrian, Jakobsonen eskemarekin jarraituz, eta harena erabiliz eta moldatuz, beste hau da agertzen zaiguna:

	Instituzioa	
Produzitzaila	Produktua	Kontsumitzailea
	Merkatua	
	Errepertorioa	

Hau onartuz gero, literatura ulertzeko, ikusteko eta aztertzeko, egoera berri batean ari gara. Jada ez dira liburuak gure artean “militantziaz” soilik ateratzen, nahiz eta horrela atereak ere badiren, baizik eta merkatuko produktu gisa argitaratzen dira nagusiki. Guzti horrek eragin handia izan du, bai idazlearengan, bai literatura eratzeko eran.

Ikuspuntu aldaketarekin literaturaren joera soziala azpimarratzen da. Instituzio sozial gisa, garbi dago egileak egiten duen idazlana gabe ez dagoela literatura komunikaziorik. Baina geroago eta garbiagoa da neurri berean ez dagoela literaturarik irakurlerik gabe.

Literatura sorkuntza ulertzeko modu bi daude: kontzeptzio erromantikoak idazlearengan jartzen du sormen sistemaren indarra, literatura zeinu sozialen parean kokatzen den sistema dela onartuz, gizarteak eragina izango luke idazleak egiten duen sorkuntza unean, dela estrategiak markatzen dituelako, dela konszienteak ez diren indarren bidez. Ez da dudarik, beste aldez, idazlearen lan batek alda dezakeela aurrean duen sistema, eta haren pentsatzeko erak aldatu.

Literatur sistema batean, merkatuaren eta programazio kulturalen testu inguruan mugitzen da literatura. Sare bat da, ez soilik gizaki batek bere bakartasunean idazten duena —oinarrian hori ere ba den arren—, baina ez da hori bakarrik. Dolores Vilavedra Galiziako literatura ikerlaririk berritzaileenaren hitzak hemen aipatzearren:

“A noción de sistema agroam dende a conceincia da necesidade de renovar os estudos literarios e dende a vondade de atopar un novo paradigma epistemoloxico que se pretendía empírico e funcional fronte a carácter histórico-hermenéutico do paradigma no que tradicionalmente se viñan xerando as teorías literarias. Inspirado polas achegas feitas dende disciplinas como a semiótica da cultura (de Iuri Lotman), a socioloxía literaria de Pierre Bourdieu, a teoría polisistémica de Itamar Even-Zohar [...] o que aquí imos denominar criterio sistémico presupón a consideración da literatura como un conxunto ou rede de elementos interdependientes no que cada un se define fronte ós restantes, isto é, pola función que desenvolve na devandita rede. E na medida en que a literatura se comporta como calquera outro sistema de signos organizado socialmente, insértase en sistemas máis complexos como da cultura” (Vilavedra, 1999).

“Sistema kontzeptua ikerketa literarioak eraberritzeko kontzientziatik eta paradigma epistemologiko berri bat aurkitzeko borondatek sortzen da, berau enpirikoa eta funtzionala izango da, teoria literarioak sortu ohi ziren paradigma historiko eta hermeneutikoaren aurrean. Iuri Lotmanen kulturaren semiotikatik, Pierre Bourdieun soziologia literariotik, edo Itamar Even-Zoharren teoria polisistemikotik harturiko ekarrietan inspiraturik [...] hemen irizpide sistemikoa deituko dugunak literatura kontzeptua osagai desberdinen sare gisa hartzen du, osagaiak elkarrekin loturan daude, eta osagai bakoitza sarean duen funtzioaren arabera definitzen da. Eta literaturak gizartean eraturik dagoen beste zeinu sistema baten modua berberean eragin dunenez, kulturarena bezalako sistema osatuago batzuen barnean kokatzen da”.

Literatura sistema bihurtzen den unean industriak eta merkatuak ere agintzen dute, irakurlearen papera ere hortxe dago, eta eragina du. Literatura kontzeptuaren aurrean, kontzeptua bera ulertzeko modu bi ditugu:

- Era tradizionala: hizkeraren eredia, estetizismo bati atxikia, orijinaltasuna zaintzen duena (abangoardia, tradizioarekin apurtzen duena). Gaur egun, literatura bada ere tradizioaren hizkuntza mantentzen duena.

- Sistemaren era: literatura bada saltzen den produktu bat ere; gizarteari interesgarri gertatzen edo suertatzen zaiona da literatura, gizartearen harremanetan kokatzen dena.

Literatura ulertzeko bigarren modu horrek badu zerikusirik literaturak gizartean —eta euskal gizartean naba-riago— izan duen funtzioarekin. Literaturak gizartearen legitimitatea gehitzen du: gizartearen legitimitatea dakar.



Legitimitatearen arazo hau, oso ondo azaldu du Tel Aviveko eskolako buru den Even-Zohar ikerlariak. Nazio modernoek literatura erabili izan dute bere legitimitatea sortzeko, nazioen artean bere burua agertzeko. Horregatik deitu izan dira Literatura Nazionalak Europan sortu izan direnak, nazio sortzeko baliagarriak gertatu izan diren neurrian. Literatura eta nazioaren arteko loturak garbi nabarmendu zituzten Errepublika garaiko idazleek, eta euren artean nagusiki Aitzolek, herriaren arima hizkuntzan zegoela adierazten zutenean, bai, baina neurri berean hizkuntza horretan egiten zen literaturan, poetak herriaren abangoardia gisa definitzen zituztenean. Bide batez, oso ideia ezaguna zen Erromantizismoan eta, adibidez, Herder edo Saint Simonengan irakur daitezke antzeko iritziak, ez zegoen, bada, oso aurreratu Aitzol. Ideia guztiok literaturaren indartze prozesuaren alde agertzen ziren, literatura herria legitimatzeko tresna gisa erabiltzeko gogoan.

Gure egunetara etorrira, beste adibide bat jar dezakegu legitimitatearen bidean. Gogora dezagun Joanes de Leizarragaren Bibliaren alearekin gertaturikoa Londoneko enkantean... Nafarroako Gobernuak Leizarragaren Bibliaren ale bat erosi bazuen, azken batean helburua garbia zuen: bere legitimitatea lortu ahal izana, bere barne tradizioa bermatzea, nolabait “Leizarraga Nafarroako, eta ez beste toki bateko, tradizioa da” esatea legez litzateke.

Bestalde, Sistema ahula den garaietan, literaturaren inguruko gizartea txikia denean, literatur genero batzuk bultzatzen dira, eta beste batzuk zailtasun handiagoz argitaratzen dira. XIX. mendean, Euskal Herrian, adibidez, errazago argitaratzen dira poemak, bertsoak orrialde solteetan, aldizkariak, eta zailago liburuak.

Adibide bat emango dugu kontzeptuaren argitasunerako. Gure artean, Katalunian gertatu zenaren antzera, eta haren mimetismoz, Pizkunde aroa deitu izan zaio Hego aldean bigarren karlistadaren ondoren gertaturiko hizkuntza eta euskararen aldeko bultzadari. Euskal Pizkundera Kataluniako “Reinaxençaren” antzera sorturiko hitza denez, euskal literaturaren barnean, arazo handia sortzen duen kontzeptua da, eta galdera sorta batez azalduko ditugu bere zehazgabetasunak:

- Arazorik txikiena ez da izenarena. Pizkunde deitzen dugu, eta 1876. urtetik aurrera jaio dela esaten da, baina hitza lehen aldiz 1905. urtean erabili zuten aranistek.

- Hego aldean soilik gertatu zen edo Iparraldean ere badago euskararen aldeko joerarik? Egia esan, bultzada hori Iparraldean lehenago sortu zen Lore Jokoei esker.

- Badirudi, pizkunde deitzen zaiola hizkuntzaren moteltze aro baten ostean sortzen den indartze aro bati. Baina nola neurtzen da irizpide subjektibo hori?

- Hizkuntzarekin lotzen den pizkunde garaia da, ala herri edo nazio kontzientzia baten agerpena delako da pizkundera?

- Noiz hasten den garbi omen dago, baina ez noiz amaitzen den. Joseba Intxaustik adibidez 1876. urtean hasten dela dio, eta 1936. urtean amaitu. Baina XIX. mendean pizkunde aroa agertzen bada ere, gorago ikusi dugun indartze aro bat badator ere, XX. mendearen hasieran, ez da gertatzen nolabaiteko indartze aroa, hain zuzen ere aurretikoei egin dutelako lana, eta XX. mende hasierako aldizkariak (RIEVek, Euskerak, eta abarrek) ingurua nahiko sendoa dute. Baina, ondoren, Primo de Riveraren diktadura dator, eta haren ondoren sortzen den mugimendu kulturalari Pizkunde deitzen zaio. Beraz,

aro bakar bat da, ala pizkunde bi ditugu, bata XIX. mendearen bukaeran eta bestea errepublika garaiko urteetan?

“Reinaxença” kontzeptuak ere antzeko arazoak ditu, horregatik aro konplexua dela onartzen da. Gurean ere horrelakoa da, konplexua, literarioa baino gehiago politiko kulturala. Pentsakizunarekin jarraitzeko, adierazten badugu aro bi izan zirela gure Pizkunde garaian, bata XIX. mendearen bukaera aldean eta bestea *Euskaltzaleak* taldearen inguruan, bat batean ikusiko ditugu zeintzuk diren literatur sistema bien artean diren desberdintasunak.

Lehen Euskal Pizkundera 1876. urtetik aurrera sortzen den pizkundera batez ere hizkuntzaren langintza hartzen du bere gain.

Erakunde filologikoak sortuko ditu: Euskararen Katedra, Euskaltzaindia.

Aldizkarien bidez garatuko da: Madrilen *La Paz* (1876-1878) aldizkaria sortuko da. Arturo Campionen *Gramatika* (1884), Iruñako *Revista Euskararen sorrera* (1877-1883), Gasteizko *Revista de las Provincias Eúskaras* (1879), *Euskal Erria* Donostian (1880-1918) eta *La Revista de Vizcaya* (1885-1889) bostak dira hizkuntzak sortzen zuen arduraren testigantza. Filologia inguruko lana *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907-1936) aldizkariaren bidez luzatuko da XX. mendean zehar. Aurretiaz Berlingen *Euskara* aldizkari filologikoa argitaratu zuten (1886-1896).

Lore Jokoak Hego aldean ere antolatzen hasten dira. Pizkunderaren aurretik martxan zegoen literatura promozionatzeko molde hau erabili egin zen euskal mugimendua indartzeko. Elizondon ospatu ziren 1879. urtean eta Durangon 1886.ean. Literaturaren sorkuntzak bere tokia du giro honetan. Arrese Beitiaren “Ama Euskarari azken

agurra” poema enblematiko bihurtu zen Elizondoko Lore Jokoak irabazi ondoren. Arrese Beitiaren lana ez da bakarria poesia alorrean.

Euskaltzaleak taldean azpian eratzen den bigarren aroa desberdina ta moldez eta taiuz. Bigarren Pizkundearen sistema eratzeko ezaugarriak desberdinak dira:

Erakunde kulturalak sortuko dira lehenago: Euskaltzaleak taldearekin, eta erabat literarioak ondoren, euskal idazleen bazkuna sortzeko ahaleginak ere badirela garai horretan.

Literaturaren eta batez ere poesiaren langintza izango du helburu nagusi gisa.

Aldizkariak ez dira, noski, desagertzen, baina liburugintzak hartzen du indarra. Euskara hutsez argitaraturiko Egunkariak sortzeko moduak bilatu zituen Lizardik eta proiektu bat eratu, baina Aitzolek sortu zuen egunkaria gaztelerazkoa izan zen batez ere.

Lore Jokoen ideia sendotu eta areagotu egiten da Olerti Egunen bidez, edo Bertsolarien Egunen bidez. Baina batez ere ez da literatura promozionatzeko bide bakarra, nahiz eta oraindik Katalunian egiten diren Lore Jokoen miresmen handia erakusten den Euskal Herrian.

Hala ikus dezakegu nola sortzen diren plataformak, sistemak, bi Pizkunde, lehena hizkuntzarekin eta aldizkariarekin lotuago, eta bigarrena literatur sistema moldatzeko moduekin lotuagoa.

### 3. Literatura eta diglosia

Anton Figueroren argudioari helduz, kontuan hartu behar dugun lehenengo kontzeptua diglosiarena dugu. Diglosia gizarte batean bi hizkuntza direnean eta bata bestea baino indartsuagoa agertzen denean gertatzen da. Bien arteko teinka horretan ahula denari deitu ohi zaio hizkuntza diglosikoa.

Garbi dago hizkuntzen artean gertatzen den egoera gogor horrek modu bitara jokatzeko duela: batetik literaturaren historiaren kontzeptuaren barrenean eragina du: hizkuntza diglosiko bateko literaturaren historiak mugak askoz ere zabalagoak ditu hizkuntza nagusi gisa eratu den besteak baino, bestetik literatura beraren moldapenean du eragina.

Lehen eragin hori askoz ere errazagoa da ikusten eta erakusten. Har dezagun euskal literaturaren historia eta begira ditzagun bere mugak. Zer da euskal literatura? Erromantizismoak eraturiko literatura nazionalaren kontzeptuari eutsiz, euskaraz dagoena soilik. Euskaraz idatzita dagoena da euskal literatura, ez dirudi, beraz, euskal literatura denik beste hizkuntza batean idatzia dagoena.

Baina, zer gertatzen da gazteleraz idatzi arren, euskarari —eta bide batez— euskal literaturari bultzada eman dioten idazleekin? Sistema indartu edo sortu dutenekin?

Hiru kasu oso desberdinak aipa ditzakegu hemen: Aita Larramendirena, Manterolarena eta Sabino Aranarena. Lan desberdinak egin dituzte hirurok. Aita Larramendik Gramatika bat eta Hiztegi bat idatziz eman zion bultzada bere garaiko literaturari, edo nahi bada, euskaraz idatzitako liburugintzari. Manterolak erdaraz moldaturiko euskal antologia bat eginez eman zion indarra erromantizismo garaiko euskal literaturari, *Cancionero Vascoren* argitaratzearekin, hain zuzen ere. Sabino Aranaren lana bikoitza izan zen, alde batetik ortografia eta hiztegia moldatu zituen, eta bestetik eragin ideologikoa izan zuen euskararen alde. Egia da, hala ere, Larramendiren txatal batzuk euskaraz daudela, euskaraz dauden moduan Sabino Aranaren zenbait poema. Baina Larramendi eta Arana ez daude euskal literaturaren historian bere sermoiengatik edo bere poemengatik, baizik eta bere hizkuntzaren aldeko kontzientzia pizte lanagatik.

Egoera honek paradoxa biren aurrean kokatzen gaitu: batetik, gazteleraz idatzitako zenbait lan euskal literaturan aipatzen dira, baina euskal biztanleek gazteleraz idatzitako guztia ez da euskal literaturan sartzen. Adibidez, Unamuno eta Barojaren lanak ez ditugu euskal literaturaren barruan sartzen egoera diglosiko honetan hizkuntza nagusiaren literatura kanonean daudelako.

Antzeko zalantzak darabiltza Galiziako literaturan aditu nagusia den Dolores Vilavedrak. Honela mintzo da Galiziako literatura zer ote den azaldu behar duenean:

“Cómpre deixar ben claro, xa e entrada, que por literatura galega entendemos aquela formulada neste

código lingüístico [...] Isto non os permite ignorar o que a praxe investigadora de inseasons estudiosos das nosas letras —com o profesor desta Universidade Xesus Alonso Montero— ten demostrado reiteradamente: a utilidade de estudar, no caso dos escritores bilingües (Rosalía de Castro, Alvaro Cunqueiro, Alfredo Conde, etc.) a súa produción en castelán, partindo da premisa de que, se ben esta fica fora do sistema literario galego, si pode a axudarnos a entender e valorar atinadamente a súa obra galega” (Vilavedra, 1999).

“Hasieratik oso garbi utzi behar dugu literatura galiziarraz kode linguistiko horretan idatzitakoa onartzen dugula[...] Abiapuntu horrek, baina, ez du ahortzi gure letretako ikerlari nagusiek —haien artean Unibertsitate honetako [Santiagoko Unibertsitatea] irakasle den Xesus Alonso Monteroren— izan duten praxiak erakutsi duena zein erabilgarria den idazle elebidunen (Rosalía de Castro, Alvaro Cunqueiro, Alfredo Conde, etc) lana ikertzea, beti ere kontuan izanda, sistema literario gailegotik kanpo badaude ere, bere lan gailegoa ulertzeko eta balioztatzeko lagungarri gerta dakigukeela” (Vilvedra, 1999).

Gurean, baina ez dago idazle elebidun peto-petorik, ziurrenik euskara eta erdara sistema oso desberdinak dirrelako, eta gainera azken hamarkadetan “erdal kutsua” euskal hizkuntzaren senaren “aurkakotzat” hartu delako. Gurean erdaraz euskarari buruz idatzi duten idazleak badiugu, eta normalean, gainera, eragina izan dutenak. Garbi dago guk ere, ezinbestean, beren erdarazko lana aztertu behar izan dugula.

Salbuespena izango litzateke azken urteetan poeta gazteen artean gertatzen dena: gai dira euskaraz zein er-

daraz, eta batzuetan alderantziz, idazteko eta argitaratzeko “naturaltasunez” eurek dioten bezala. Pili Kaltzada edo José Luis Padrónen lanak hor ditugu adibidetzat, inoiz Gabriel Arestiren lana ere izan daiteke aztergai. Edo berriki Juan Ramon Madariagak gazteleraz idatzitako poema liburua eman du argitara. Baina orohar salbuespenak dira.

Gurean, agian, eta Villasantek jarritako adibidea daukat gogoan, idazleak eta filologoak nahastu ditugu eta hor azterketa korapilotsuagoa da, zalantzarik gabe.

Ez da isildu behar gure gaurko ikuspegitik ideologiak, eta garbiago ideologia nazionalistak agindu egiten duela kanonizazio prozesu batean, idazleren bat euskal literaturaren zerrendetan sartu edo ez sartu erabakitzen dugunean. Unamuno eta Baroja aipatzen ditugularik, garbi dago Baroja euskaltzaleagoa iruditzen zaigula Unamunoren aldean, eta hori ez da soilik Barojaren lanetan euskal folkloreak eta nortasunaren presentzia handiagoa delako edo euskal gaia zabalago tratatzen delako. Susmoa dut Unamunok euskararen garapenaren aurka egindako baieztapenek ere badutela zerikusirik arazoan.

Ez da zalantzarik, beste aldetik, literaturaren kano-naren irizpidea estutzen joan dela. Ez dugula berdin epaitzen literatura den esateko orduan XVI. mendeko kristau ikasbide bat edo gaurkoa. Hain urria izaki idatzizko produkzioa XIX. mende arte ontzat ematen ditugu idatzizkoaren garau horiek, edo ontzat emateko joera zabalagoa izan da, horretan ere desberdintasunak baitaude. Baina dena sartzekoaren aldeko agertu zen Villasante, adibidez, eta ez hainbeste sartzekoan alde Mitxelena, eredu bi aipatzearen. Literatura klasikoarekiko esku zabal-tasun handiagoa erakusten da euskal literaturaren historietan, eta gaur literaturatzat onartzen ez duguna dugu garai klasikoetan urritasuna baita nagusi garai horietan.



Garbi dagoena da, metodologia aldatu beharra dagoela. Eta gorago aipatu dugun bezala, Lottmanen kulturaren semiotika, Bourdieuren literaturaren soziologia eta Even Zoharren polisistemen teoriak eskura ditugunean, ezin ditugu alde batera utzi, gure literaturan zer nolakoa den jakiteko orduan.

XVI. mendeko literaturaz erabiltzen ditugun irizpideak XX. mendeko literaturan mantendu nahi izateak arazoak dakartza. Orain gutxi irakurri dudan bezala, Linda White ikerlariak kanonean gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen duten tokiaz mintzo delarik, hemen aipatzen ditugun arazo berberak aipatzen ditu euskal literaturaren historia aztertzerakoan. Gure historian badira kristau dotrina bakarra idaztearren literaturaren historia-ren barnean kokatzen ditugun idazleak, badira gaur egunean literaturatzat ez ditugun generoak, badira euskara jakin gabe liburu bat euskaraz laguntzarekin idatzi eta argitaratu dutenak eta denak daude euskal literaturan.

“¿Es suficiente crear una obra para ser escritor? Para los hombres, sí. De los 255 hombres mencionados originalmente [erabiltzen ari den euskal literaturaren 5 historiez ari da] 64 han publicado solamente una obra, y no todas han sido de la calidad de Gero (el único libro de Axular). Además de esto, el número incluye obras que hoy no consideramos como literatura, por ejemplo los pequeños catecismos, el libro de navegación de Pedro Detcheverry y el libro de medicina veterinaria de Mongongo Dassançã” (White, 2000, 273).

Whiteren hitzekin konforme gaude. Egia da, gure literaturaren historian euskaraz idatzi ez duten idazleak daude (Daskonagerrez ari da nire ustez zuzen White), literatu-

rarik idatzi ez dutenak, filologia idatzi dutenak, obra bakarrekoak, gaur egun literaturatzat ez duguna idatzi dutenak (Leizarragaren Bibliaren itzulpena euskal literaturaren historian dago, elizetan erabiltzen diren Meza emateko liburuen Euskal Herriko Eliz Barrutien itzulpena, ordea, ez, nahiz eta itzultzaileen artean Bitoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona, Mikel Zarate bezalako idazle garaiak izan).

Baina gaixoaren sintomak hain ongi azaldu gero, emakumeaz aritzen denez, gaixoaren sendotzea bilatu ordez, gaixo hori emakumeen literaturara ere zabaltzea bilatzen duela dirudi:

“En contraste he notado que las mujeres que han publicado solamente una obra (aunque sea una novela) creen que no es suficiente para considerarse escritoras. [...] ¿Cuánto más deben escribir las mujeres para ser tenidas en cuenta? Las mujeres que he encontrado en mi investigación no escriben catecismos ni sermones ni libros técnicos sobre navegación. No escriben en otras lenguas (o si lo hacen, no están incluidas aquí solamente por ese hecho)” (White, 2000, 274).

Argumentazioak zuzena dirudi, baina falazia bat da. Whitek azaltzen ez duena da, gaur egun literatur genero ez dena (katekismoa, nabigazio liburua) ez dela literatur historietan sartzen. Akronikoa da argumentua, eta ez du esaten XVI. menderako, eta XVII. menderako edo XVIII. menderako ontzat ematen ez duguna ez dugula ontzat ematen XX. menderako. XX. mendeko katekismoak, nabigazio liburuak, erdaraz idatzitzako liburuak ez ditugula kontutan hartzen. Matizazio hori gabe bere argumentuak ez du baliorik, nahiz eta arrazoia duen

emakumezkoen kasuan ez dela justizi berdina egiten, eta egoera hau ere polisistemen teoriak azaldu beharko luke, edo teoria politikoak, edo politikoki zuzena den teoriak.

Whiterekin bat nator egin duen bidean, baina ez hartzen duen azken erabakian. Bere ustetan orain arte hartu ditugun erabakiak ez lirateke zuzendu behar, bai-zik eta emakumeen literaturara zabaldu. Horretan ez nator bat, nire ustez orain arte hartu ditugun erabakiak zergatik hartu diren ikusi beharko dugu, eta paradigma, pentsatzeko era, perspektiba aldatuz gero, saiatu historia eta ikerketa zuzenagoak egiten. Egia esan White kantitateaz oso arduratua ikusten dut, esaldi honek adierazten duen moduan:

“Borda ha creado mucho más que la mitad de la suma de hombres mencionados en los libros de literatura vasca y su producción es de alta calidad”. (White, 2000, 275).

“Alta calidad” denoi kostatzen zaigu definitzea, eta nik egin ezin dudana ez diot eskatuko Whiteri.

Adibideetatik teoriara igaroz gero (emakumeen presentzia eskasa ere azalduko duen teoriara, hain zuzen), jarrai dezagun bidean. Orain artean, arazoa non dagoen ikusi dugu, beste behin esatekotan muga faltaz hitz egin behar dugu, baina hasi gaitezen diglosiak sortzen dituen arazo zehatzak azaltzen.

## 4. Bederatzi ezaugarri

Atal honetan Anton Figuroak hain zorrotz azaltzen dituen bederatzi ezaugarriren zerrenda emango dugu, hain zuzen ere, banaketa soil bat egiteko, eta ondoren bide bat hartzeko, zeren ezaugarri guztiak ezin dira zaku berean sartu, eta batzuk literaturaren historiarekin lotuak daude, eta beste batzuk, aldiz, lan honen hasieran jartzen genuen galderarekin, esan nahi da, hizkuntzaren aukerak idazleari jartzen dizkion mugekin.

Egoera diglosiko batean bizi den hizkuntza txikian egiten den literaturak agertzen dituen ezaugarriak hauek dira, bere aipamen sotilean, beste gabe emanda:

1. Literaturaren eta testuaren arteko nahasketa.
2. Testua literaturaren historian.
3. Espazio eta denboraren forma tipologikoen desoreka.
4. Elementu folkloriko, etnografiko eta mitikoen garrantzia.
5. Filologizaziorako joera.
6. Hizkerarekiko ardura neurotikoa.
7. Igurikimen ortze mugaren falta.

8. Idazleen traiektoria falta.

9. Zentzu ludikoa eta zentzu epikoa aurrez aurre.

Bederatzi ezaugarriotan badira teoria zenbait, eta hainbat eta hainbat aipamen azaldu beharrekoak, zalan-tzarik ez dago, batzuk literatur kritika berriaren barnean kokatzen baitira. Horregatik pazientzia pixka bat eskatu behar diogu irakurleari, banan-banan puntuz-puntu, azaltzen joango garelako, eta argibideak ondoren agertu-ko dira.

Orain bakarrik bereizkuntza bat utzi nahi dugu agerian. Lehen eta bigarren ezaugarriak literatura diglosiko baten barnean kokatzen direnak dira, eta literatura hori ulertzeko moduei dagozkie, beste zazpiak idazlearen lana moldatzen dutenak dira. Nolabait esateko, literaturaren historiarako baliagarri gertatzen dira lehen biak, eta beste zazpiak testugintzarekin lotuak daude.

Bederatzi ezaugarriok, bada, ez dute berdin jokatzen literatura sistemaren barnean. Batzuk literaturaren historia ulertzeko moduarekin loturik daude, besteak ordea, testua idazteko orduan gerta eta ageri litezke, baina literatura diglosiko batean agertzeko joera hori nabaria da, eta beraz, esan dezakegu, literatura diglosiko batean idazten duen idazleak ezaugarri horiek erabiltzeko joera agertuko duela, ez hizkuntzak horretara bultzatzen duelako, baizik diglosia egoera historikoa izaki, ezaugarri balarazioa egitearen alde jokatzen duelako.

Beraz, hipotesi gisa esan dezakegu hizkuntza diglosiko batean idazten duen idazleak bere idazkera era batekoa izateko joera nabarmenduko duela. Esan beharra dago, hala ere, hipotesiaren alde historikoa oso kontutan hartu beharrekoa dela, eta Anton Figueroren hipotesi nagusi hori ere errebisatu beharra dagoela.

Baina, hausnarketarekin hasteko esan dezakegu hizkuntza diglosiko batean idazten duen idazleak, tradizioaren eraginez, baduela halako ezaugarri batzuk agertzeko joera.

Hau guztia ulertzeko hobe dugu ezaugarriak banan-banan azaltzen eta diskutitzen hastea.

## 5. Literaturaren eta testuaren arteko nahasketa

Gorago aipatu dugunez, ezaugarri honek zer ikusi handiagoa du literaturaren historiarekin gaur egun egiten den literaturarekin baino, baina badu eraginik hala ere.

Antón Figuerok honelako planteamendu bat hasten du. Gizarte batean era biko testuak aurkitzen ditugu, batzuk prozesu primarioak sortzen dituzte. Esan nahi da, lehen mailako prozesuetan, prozesu primarioetan hizkuntza mezu normal eta eraginkorrak sortzeko erabiltzen da. Hauxe litzateke hizkuntzaren oinarrizko funtzioa, mezuak sortzea elkarren arteko komunikazioa lortzeko. Baina gizarte baten barnean hizkuntzak bigarren mailako prozesuak ere sortzen ditu, prozesu sinbolikoak. Hizkuntza guztiek dituzte zenbait irizpide (balentzia deituak) mezuak lehen mailan edo bigarrean kokatzeko, mezua komunikatiboa edo sinbolikoa den ebazteko. Diskurtsoak klasifikatzeko erabiltzen dugun bide horri “matriz soziala” deitzen dio Figuerok. Matriz soziala ez litzateke fitxategi bat izango, baizik eta behin eta berriro eten gabe moldatzen ari den irizpidea. Beraz, testu litera-

ria "testu" posible guztien barnetik bereizten den mezua litzateke. Mezu horren berezitasuna matriz sozial (irizpide) aldakorraren eta behin eta berriro aldatzen den irizpide baten arabera literario gisa klasifikatzen den mezua litzateke.

Hizkuntza diglosikoetan baina, hizkuntza diglosikoaz baliatzen den menpeko kulturak arazoak ditu matriz sozial hori, testu bat literario gisa klasifikatzen duen irizpide aldakor hori, zein den argitzeko, bere balioak sinbolikoak diren ala ez jakiteko. Batzuetan berri gisa edo sinboliko gisa (literariotzat jotzen dena, azkenean) agertzen dena ez da berria ala ez da sinbolikoa, baina ezin da jakin, azken batean irizpide zehatzak falta direlako hizkuntza eta kultura diglosiko horretan lan bat literarioa den edo ez agertzeko, zerbait berria edo sinbolikoa den jakiteko. Horrela testuak "fetitxe" gisa onartzen dira: "euskaraz dagoen guztia da ona" esaten dugunean horrelako jokoan jausten ari gara. Matriz sozialaren faltaz ari den joera baten ispilu dugu "euskaraz dagoen guztia erosten dut" esaten duena (zorionez, azken parte honetan geroago eta zailagoa da hori egitea, matriz soziala egiten ari garen seinale).

Jarrera horrek bere eragina du:

"Hai tendencia á confusión de sistema primario e sistema secundario, e, dentro de este último, a confundir texto e texto literario" (Figueroa, 1988, 23).  
"Lehen mailako sistema eta bigarren mailako sistema nahasteko joera dago, eta, bigarrenaren barnean, testua eta testu literarioa nahasten dira" (Figueroa, 1988, 23).

Historikoki gure literatura historietan testu literarioa eta literarioa ez dena nahastatzeko joera izan dugu.



Literatura klasikoaz ari garela batez ere, euskal literatura-  
ren historian gaur egunean genero literario direnen tes-  
tuak eta gaur egun ez direnak berdin sartzen ditugu. Beti  
hartzen den erantzuna zera da: genero literarioen kon-  
tzeptua historikoa dela, historian aldatuz doala, alegia.  
Bai, gure kontua, baina, ez da gaur literatur genero ez  
diren testuak onartzen ditugula, baizik eta bere garaian  
ere literatur genero ez zirenak onartzen ditugula: dotri-  
nen itzulpenak, adibidez. Horrelako testuak bere garaian  
ez ziren literatura. Testu ziren, beste barik.

Bai badakit urri dugula gure tradizio literarioa. Ga-  
renak gara, eta dugun historia dugu, eta urria dela esa-  
teak ez luke irakurketa sinplerik bultzatu behar. Esan na-  
hi da, ezin dira onartu ezjakintasunaren aldetik eta poli-  
tikatik zuzenean datozen iritziak; tradizio urria dugulako  
ez dugula literatura egiteko biderik edo senik. Gurearen  
antzekoa da beste herrialde batzuetan gertatu dena, eta  
zuzen-zuzenik gaurko zenbait hizkera nagusi ere, urri sa-  
mar aurkitzen dira erdi aroko literaturan. Hizkera nagu-  
siek gertatzen bada, zer ez ote da gertatuko hizkuntza  
diglosikoekin? Gailegoek darabilen “Os séculos escuros”  
esaldi hori, literatura ederrik gabe bizi izan ziren mende-  
ak adierazteko, alegia, beste zenbait herrialdeetan gerta-  
tzen dira era berean. Ez dut uste lotsatu behar dugunik,  
dugun literatura dugu eta beste herrialdeetan berttua da.  
Ez dira onargarriak beraz ezjakintasunetik egiten diren  
erabateko deskalifikazio orokorrak. Tradizio faltaren gaia  
ez nuke bere eremutik —lan honen eremu den—, litera-  
tura esparrutik harago eraman nahi. Arazo historiko hori  
literarioa da, batez ere, eta horrela juzgatu beharko dugu,  
tradizio faltak literatura egiteko orduan ez duela lagun-  
tzen baieztatuz adibidez, baina ez euskal literaturaren

historia goitik behera deuseztatuz. Patologia, beste alde batetik, literatura guztietan gertatzen da, adibidez, ezin da esan gazteleraz filosofia aberatsa egin denik historikoki, hala ere jarraitzen dute gazteleraz filosofia egiten.

Bai badakit urri dugula gure tradizio literarioa, eta urritasunaren izenean onartzen ditugula testuok. Konforme! Baina arrazoiak ez du ezaugarria deuseztatzen: literatura testua eta testua nahastatzen jarraitzen dugu. Esan beharko da, agian, urritasunarena ez dela erabiltzen den arrazoi bakarra, ez eta ere garrantzitsuena. Hizkuntzaren aberastasunaren, antzinakotasunaren eta ezagutza hobe baten aldeko arrazoiak gehiago konbentzitzen naute testuak historian sartu edo ez sartu erabakitzeko orduan.

Honek guztiak bat-batean jartzen gaitu kanonaren arazoaren aurrean. Zer den edo zer ez ote den testu kanonikoa erabakitzea ez da erraza. Baina gure arazoa beste bat da, hain testu gutxi dugunez, batez ere XX. mende arte, dena sartzeko posibilitatea ere badugula.

Ezer erabaki aurretik, eta pentsatzen jarraitzeko, aurretiaz, behar bada, zehaztasun bi eskaini behar ditudala uste dut. Kanona dela eta, bide bi daude, dena sartzearen alde agertzen dena, adibidez Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca*-n egiten den bezala, eta bestea estuagoa, agian estuegia, adibidez, *Euskal Literaturaren Historia Txikia*-n saiatu nuen bezalakoa. Beste alde batetik, banandu behar ditugu euskal literatura klasikoa, jo dezagun XX. mende artekoa eta bestea, literatura modernoan gertatzen dena.

Kanonaren arazoan esku zabaltasuna aukeratzen bada, Villasanteren kasuan gertatzen den bezala, ez dugu soilik literatura eta testua nahastatzen, baizik eta literatura eta euskarari buruzko testua, eta literatura eta beste

hizkuntza batean euskarari buruz idatzitako testua. Kanon horretan, bestela esateko, hiru lau maila desberdin —eta ez bi— nahastatzen dira: literatura, testua, euskaraz den lan filologikoa, eta euskaraz ez dagoen lan filologikoa.

Normalean onartzen da literatura klasikoan zilegia dela literatura eta testuaren arteko nahasketa egitea. Hori estuagoa da literatura modernoan (onar bekit banaketa sinplegarri hori: literatura klasikoa, eta literatura modernoa). Baina ez da erraza literatura modernoan kanonizazioa egitea. Agian, hemen ere literatura eta testua nahastatzen ditugu, baina banaketaren zentzua beste bat da orain. Garbi dago genero batzuk kanpoan utzi ditugula, baina, nire iritziz, genero literario baten barneko kanonizazio prozesuak egin behar dira orain eta ez ditugu egiten.

Badaude arrazoiak horretarako.

Urritasuna, lehena. Batez ere azken urteotan asko argitaratzen bada ere, literaturan argitaratzen den guztia —edo ia guztia— irakurtzeko eta aztertzeko modua dago oraindik. Ez gaitezen ilundu, nonbaiten nahastatzen bada literatura eta testua gure artean da, batez ere, urtean argitaratzen den liburu kopurua aipatzerakoan. Urtean 1600 liburu argitaratuko ditugu bai, baina literaturakoak (haur literatura oparoa, barne) ez dira horrenbeste. Poesian adibidez, 10 bat liburu argitaratu ohi izan dira urtero-urtero azken urteotan. Kopuru horrekin dena irakurtzeko beta ere badago. Beraz, literatura historiak egin beharrean literatura entziklopediak egiteko joera ere badaukagu. “Euskaraz dagoen guztia da ona”, gorago karikaturla gisa jarri dugun esaldiaren erakusgarria baino ez litza-teke jarrera hau, esaldiaren gordintasunik gabe, jakina.

Idazleen presioa. Bizirik diren idazleez mintzo gara, eta ez da dudarik kanonizazio prozesuetan idazleek bere

presioak egiten dituztela, argialetxeak sortuz, adibidez. Txantxa gisa esan dezakgu honakoa: Euskal Herrian idazle kanonikoa izateko argialetxe bat kontrolatzea ez dator bat ere txarto.

Literaturaren kontzeptuaren aldaketa. Literatura baten prestigioa irizpidea izan da testu bat literariotzat hartzeko. Gaur egun beste irizpide batzuk erabiltzen dira, “testuzentristotik” harrera teoriaren abiapuntuetara igarotzen garen neurrian. Testuzentristoak testuaren eraginkortasuna hartuko luke kontutan, harrera teoriak testu batek gizartean duen erantzuna. Salmenta literatur irizpide bihurtzekotan den une honetan, gogora ekarri behar nuke zenbait arrakasta argialetxeen sukaldetatik etorri direla egosiak. Eta gurerik ez aipatzearren, Planeta Sariarekin gertatzen dena aipatu nahi nuke, adibide gisa. Beraz, salmenta ez da beti irizpide literarioa. Gizartearen interesa, salmenta baino kontzeptu zehatzgabeagoa da baina erabilgarriagoa. Salmenta interesaren indizioa da, eta ez beti eragin bakarra literaturtasunean.

Ez dut ebatzi nahi nola egin behar den kanonizazioa gure artean gaur egun, bakarrik adierazi nahi nituzke gauza bi. Nahiz literatura historiaren (batzuk baino ez ditugu sartuko historia horretan) kontzeptu estua erabili nahiz literatura entziklopedikoaren kontzeptu zabala erabili (idatzi duten guztiak sartuko dira) historiagileek badakite literaturaren eta testuaren arteko nahasketak hor duela mehatxu egiten. Beste alde batetik, historiagileek garbi izan behar dute, eta ziurrenik idazleek ere bai, literatura komunikazioa dela, eta sistema ere bai, eta sistema aldakorra. Gero eta garbiago daukat, ordea, literatura komunikazio sistema dinamikoa dela, aldakorra, gizarte baten barnean aldakorra, interes desberdinen erdian, batera

eta bestera egiten duena. Kanona ere dinamikoa da, ulertu behar da literatur komunikazioa denbora eta toki zehatz batean gertatzen dela, eta literatur testua sistema barruko eta kanpoko beste literatur sistemako produktuekin elkarrizketan dagoela, interferentziak daudela, eta sare hori eten gabeko aldaketan dagoela eta irakurtzeko modu berriez baldintzaturik agertzen dela.

Hala eta guztiz, idazle guztiek eta sistemak berak kanon bat mantentzen dute erreferentzia iturri gisa, eta hori ere aldakorra izango da, baina egon badago.

## 6. Testua literaturaren historian

Ez dago diferentzia handirik bigarren ezaugarri honen eta lehenengoaren artean, haren indartzea besterik ez litzateke izango hau.

Ez dugu soilik testuaren eta testu literarioaren arteko nahasketa egiten, baizik eta nahasketa hori kontserbatu egiten dugu, horrela hizkuntzaren legitimitateari indarra emanez, testu kopuru hori hizkuntza nagusiaren aurrean erakutsi nahiez, horrela literatura ez da bihurtzen soilik legitimitate bide bat, erresistentzia bidea ere bada:

“Esta mesma confusión vese incrementada pola tendencia a “conservar” textos que nunha situación normalizada non serían probablemente apreciados. Isto leva a unha especie de prometeísmo real que ten a su lóxica: un texto constitúe un factor de resistencia fronte a lingua A, e por iso tenden a “conservarse” todos” (Figuroa, 1988, 23).

“Nahasmen hori indartu egin da egoera normal batean ziurrenik onartuak izango ez ziren testuak “gordetzeko” joerarekin. Horrek guztiak bere azalpena duen “prometeismo” erreala indartzen du: A

hizkuntzaren [hizkuntza nagusiaren] aurrean erresistentzia ahalegina da testua, horregatik “gordezen” dira guztiak”.

Baina, gainera badu honek beste eraginik. Testu estetikoak, sinbolikoak eta literarioak den neurrian beste guztien artean berdin-berdin kokatzen da. Egoera honetan bere eraginkortasuna hartzen da kontuan, hizkuntza nagusiaren aurrean egiten duen erresistentzia eta beraz, bere indar estetikoak gutxietsia da.

Bada euskal literaturaren historiarik baliabide estetikoek iritzirik agertzen ez duena, horrela testuak, testu guztiak, parekoak dira, lerro kopuru bera eskaintzen zaie Axularren liburuari zein bigarren mailako idazle bati.

Bigarren ezaugarri honek beraz eragin paradoxala du, horregatik da Prometeoren lanen antzekoa: testu arrunta testu estetikoaren pare jartzen du, eta alderantziz, testu estetikoak gutxiesten du testu arruntaren parera ekarriz. Sisiforen antzera testu estetikoak behin eta berriro adierazi beharko du bere literariotasuna, behin eta berriro lanean arituko da, testu arruntetik urrundu nahian.

Beste kontu bat da, ordea, polisistemen teoriatik begiratua, zenbait ekintza kultural literatura sistemaren barnean kokatzea, adibidez Lore Jokoen instituzioa aztertzea estetikaren, literatur mugimendu baten garapenerako izan duen garrantziagatik.

## 7. Espazio eta denboraren forma tipo- logikoen desoreka

Hizkuntzen arteko teinka dagoenean, mezuak lehen mailan, komunikazio maila arruntean, edo bigarreanean, komunikazio sinbolikoan edo estetikoan klasifikatzen dituzten literatura baten barnean agertzen diren irizpideak desorekatuak agertzen dira. Garai batean berri zirenak, berritza hartzen dira nahiz eta garaia desagertua izan. Literaturak “bizirik” ez diren indarrak maite ditu, nolabait esateko. Joera atzerakoi bat nabarmentzen dela esaten badugu, gauzak ikusteko era sinplea izan arren, ez ginateke egiatik urrunegi.

Gorago azaldu dugun moduan, badago matriz soziala, badira gizartean indar batzuk mezuak literarioak diren edo ez diren erabakitzeko, nahiz eta gorago aipatu den bezala, indar horiek ez diren inoiz geldoak, biziak dira. Hemen proposatzen dena, zera da: indar batzuk zaharkituak izan arren mantendu egiten direla. Dispositibo



tipologikoek osatu egiten dute literaturaren sarea, matrize soziala deitu izan duguna.

Normalean, gizatalde minorizatuak, iragana maite du, iraganean bere ezaugarri batzuk aurkitzen direla uste duelako, eta espazio aldetik ere beste horrenbeste gertatzen da, espazio batzuk indartuak agertzen dira, eta beste batzuk gutxietsiak.

Adierazten duguna zera da, zerbait literatura den ala ez den finkatzeko gizarreak erabiltzen dituen irizpideak zaharkituak agertzen direla, zenbait kasutan.

Antón Figueruari hitza emanez gero, honela definituko luke ezaugarria, hitzaren teknizismoak argitu nahiez:

“O grupo sociocultural, ó sentirse ameazado, ten tendencia a valorar-lo pasado simplemente por posuír un sinais de identidade”.

“Talde soziokulturalak bere burua mehatxatua ikusten duenez, iragana ongi baloratzeko joera du, nortasun zeinuen bila ari delako”

Egia da kontzeptua askoz ere garbiagoa agertzen dela hurrengo ezaugarrian, honen adibiderik garbiena folkloreak nagusitasuna baita, baina ezaugarri hori geroxeago tratatuko dugunez, bego hemen ezaugarriaren adibiderik garbiena: Txomin Agirre.

Txomin Agirrek atzeratuak diren jokabide tipologikoekin egin du lan: iragana maite du, edo bestela akronia, denborak ez du aurrera egiten bere nobeletan, heroiak, Joanes artzainak beti du adin bertsua, espazio aldetik ere espazio bi eman ditu espazio “euskalduntzat”, itsas hegia eta baserria, eta beste batzuk markatu ditu espazio “ez euskalduntzat”: kalea, Bilbao, Ezker aldea, ezkerria hemen geografia eta soziologia ere badelarik.

Planteamendu honetan Txomin Agirre baina, ez dago bakarrik. Aitzolek proposatzen duen munduaren ikuskeran, literaturan eta artean, nagusiak izango dira horrelako joerak. Aitzolen proiektu kulturean hiria kanpoan dago, eta beste nonbaiten azaldu dut zergatik gertatzen den hori, bere konplexutasunagatik orain azaldu ezin badut ere. Joxe Azurmendik hainbaten azaldu duenez, Orixeren *Euskaldunak* izango litzateke ikuspegi horren adibiderik garbiena. Ez hori bakarrik, Lauaxetaren *Arrats Beran* liburuko zenbait pasarte, herri literaturatik hurbilten direnak ere horren partaide dira.

Hala eta guztiz ere, banaketa dago, eta ez nolana hiko, ohiturazaletasunaren eta modernismoaren inguruko poesiaren artean. Estetika bi dira, diferenteak, sakoneko planteamendu ideologikoetan ere —biak arnas katoliko batek bultzatzen baditu ere—. Estetika bi dira, baina mantentzen dute “balentzia” bera, sare hari berbera: euskalduntasuna baserrian eta arrantzaleen artean kokatzen da. Estetika aldatu egin da, baina matriz sozialak duen geografia baten aldeko zentzu hori, indar hori, “balentzia” hori mantendu egin da, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Esan den moduan, batzuetan badirudi nahikoa dela euskaraz idaztea idatzitako zerbait literaturatzat hartzeko. Badirudi kodigoa balio gisa erabiltzen dugula, ba era berean, badirudi balio batzuk, denbora zein geografia batzuk beste barik hartzen direla baliagarritzat literatura izateko:

“nestas situaciones cun valor de por si mesmo, cunha significación permanente, constante en líneas xerais, autónoma (independiente do que se diga ou escriba en cada momento ou texto)” (Figuerola, 1988, 22).

“Egoera horiek bere izaeran dute balioa, adierazpen iragankorra, betikoa, orokorrean aldaezina, autonomia (une edo testu bakoitzean idazten denarekin loturarik ez balu bezala).

Hori gertatzen da, noski, sistema bat eratzen den neurrian: Aitzolek bere iritziak zabaltzeko egunkariak eta argitalpenak zituenean, bere iritziak jarraitzeko prest diren idazleak aurkitzen zituenean, irakurleak ere prest zirenean olerkarien lanak jarraitzeko eta irakurtzeko. Arazoa okerragoa da sistemarik ez dagoenean, idazle batek bere kabuz sortu behar duenean bere literatura, argitalpenak ez direnean, ia irakurlerik ez duenean, eta hori horrela gertatu da, Hego aldean, behintzat, ia XIX. mende osoan.

Alegia generoaren iraupena, adibidez, horrela ulertu beharko litzateke. “Balentzia” batzuk, testuen balioez diren iritzi batzuk mantendu egiten dira ia aldaketarik gabe, literatura normalizatuetan beste era bateko poesia egiten den bitartean.

Sistemarik ez dagoenean, edo oso urria denean —aztertu beharko litzateke zer nolako sistema zegoen Euskal Herrian XIX. mendean: ziurrenik fraideen artean egongo zen nolabaiteko tertulia modurik, idatzitakoa elkarri erakutsiz sortuko zen kontraste sarea, erdaraz ikasitakoa izango zen nagusi, literatura hezkuntza zein zen aztertu beharko litzateke, e. a.— ez dago kontraste sarerik norberaren lana beste ikuspuntu batetik juzgatua izan dadin.

Sistemarik ez dagoenean, sarerik ez dagoenean, zaila da zer den berria adieraztea. Idazlea isolaturik dago, bere munduan, bere etxean, eta beste idazle batzuen laguntzarik ez badu, ez du irizpide biderik bere lanaren kontrastea egiteko. Matriz sozialak desorekatuak direla esaten dugunean, adierazi nahi dugu, idazleak sakabanatuak direla, eta

ez dutela kontraste biderik egiten dutena beste batekin konparatzeko, ikusteko zer den berria, eta zer ez. Beste alde batetik, zaila zaie tradizioa jarraitzea, bera baino lehenago idazten ari zirenekin elkarrizketa mantentzea.

Berriro joko nuke XIX. mendera hori guztia adibidez hornitzeko. XIX. mendeko idazleek, eta batez ere Bizkaikoak dira gehien ezagutzen ditudanak, ez guztiz isolaturik, baina sistema sortzeko estutasunak aurkitzen dituzte, batez ere, argialetxeen sistema oso urria delako, eta Eusebio Azkueren lana dut gogoan, argitaratzeko bide handirik ez dagoelako, ala beste barik debekua izan ez denean. Esku izkribu argitaragabeen sorta ederra dago XIX. mendean. Horrek guztiak adierazten du zein ahula zen literatur sistema. Lan baldintza horietan, egia da idazleak bilatzen duela adiskideen itzala, Azkueren kasuan Aita Uriarte izan zuen ondoan, baina Aita Uriartek ere ezin izan zuen egin zuena argitaratu. Zentzu horretan, sistema ahula denean, kontraste bideak urriak eta eskasak direnean, gertatzen da balentzien desoreka. Idazlea bakarrik dago, eta kontraste bideak urriak ditu, ezin du konparatu egiten duena, ez beste batzuekin, ez euskal literaturaren tradizioarekin.

Beste alde batetik, sistema indartzen doan neurrian, gaur egun adibidez, errazagoak dira beste idazle batzuekiko elkarrizketak edo tradizioarekiko den elkarrizketa, ia tradizio osoa argitaratua delako, sistemak mende askotako idazleen lanak jarri dituelako merkatuan salgai. Hala eta guztiz ere, gure (gaurko) sistemak agertzen ditu bere ahuleziak. Adibidez, oso doktorego tesi gutxi egiten dira aro klasikoez, ia gehienek XX. mendea hartu dute aztergai. Beraz, berrirakurketa mota bat —doktorego te-

siak beti dira berrirakurketak, eta berrirakurketarako gonbiteak— ez dugu nahiko zaindua gure etxean.

Beraz literatura balorazio indarren desoreka modu bitara uler bedi. Alde batetik, desoreka idazleen arteko elkarrizketan, elkarrizketa garaikoekin edo tradiziokoekin gerta daitekeelarik, edo espazio eta denbora batzuk indartuz, batez ere.

Zentzu horretan aurkitzen ditugu indar zaharkituak gure literaturan. Baina esan dugu, joera honen adibiderik garbiena folkloreakaren erabileran dugula, hurrengo ezaugarrian, alegia, eta hemengo joera teorikoa era garbiagoan azaltzen saiatuko gara orpoan datozen lerroetan

## 8. Elementu folkloriko, etnografiko eta mitikoen garrantzia

“Como mostra máis significativa do que acabamos de dicir, pódese afirmar que en xeral hai tendencia a elevar á categoría de “valencias” elementos folklóricos, etnográficos, míticos... que suplantán ó auténtico traballo estético” (Figueroa, 1988, 23).

“Esan dugunaren argibide gisa, baietsi dezakegu orokorrean osagai folklorikoak, etnografikoak, mitikoak...“balentzia” kategoriara jasoak direla, oinarritzko lan estetikoa alderatuz”

Honela hasten du ezaugarri honen azalpena Figueroak, goragoko ezaugarria, espazio eta denboraren egoera tipologikoen desoreka, batez ere, teoria mailan gertatzen zen, oraingoa, ordea praktika literarioan.

Gure literaturan erraz aurkitzen ditugu elementu folkloriko, etnografiko eta mitikoak, behin eta berriro landuak eta erabiliak. Ohartarazi nahi nuke, hala ere, jarrera deskriptiboa erabili nahi dudala lerroetan, eta ez baloratiboa, erabiltzeak beste barik, ez duela esan nahi lan estetikorik ez dela egin edo ez duela egin, halakok eta horrelakok.

Folklorearen erabilpena oso zabala izan da gure artean. Hasi behar nuke gogoratuz herri literaturaren bilketa lana zabala eta aberatsa izan dela gure artean. Resurrección María Azkue, Aita Donostia, Joxe Migel Barandiaran izen ospetsuak badira bilketa lanean, Aitzol teoria egile gisa ere ezin da ahaztu. Eta lehenago beste batzuk ere bai: Manterola, Michel, Sallaberry...

Literaturak egin duen folklorearen eta etnografiaren erabilpena zehazten hasi orduko edonori datozkio burura gorago aipaturiko izenak: ohiturazale guztiak: Txomin Agirre, Kirikiño, Tomas Agirre eta abar luzea. Modernistak ere bai, noski, Orixen buruan dela, hain zuzen ere modernismotik urrunen zegoena bera zelako.

Baina oraintsu gertatu den kasu batek zer pentsa ematen du alde honetatik. Joan Mari Irigoienek *Babiloniaz* ari naiz, mitikoa, etnografikoa eta folklorikoa bildu duelako, modu landu batean bere nobelan. Berririo azalduko dut ez dudala *Babilonian* gertatzen den estetika juzgatzen, ez da balorazioen aroa, baizik eta adibide gisa eman nahi dut. Jakina denez, *Babilonia* euskaraz argitaratu eta ibilbide arrakastatsua izan ondoren, gaztelerara itzuli dute. Beraz, nobelak ibilbidea izan du sistema bitan, euskarazkoan, egoera diglosikoan, eta gazteleraz, sistema nagusi edo normalizatutzat hartu dugunean.

Euskaraz, nobelak arrakasta handia izan du: sari anitz lortu du, eta hainbat edizio egin dira, irakurle kopurua ere altua izan duelarik. Baina zer gertatu da erdarara igarotakoan? Bada, gazte bilduma batean argitaratu dutela, ez literatura serioaren txokoetan, baizik eta beste zerrenda batzuetan.

Adibideak ongi azaltzen du produktu bat era batez hartzen dela sistema baten eta beste batez beste batean.

Izan du zerikusirik elementu folklorikoak eta etnografikoak balio agerpen horretan? Euskal munduari dagokionez baiezkoan nago. Idazleak berak azaldu duenez, *Babiloniak* bazuen euskal izaerarekin loturarik, eta folklorikoaren presentziak izaera hori indartu egin du. Uste dut euskal sisteman ikaragarri baloratu dela elementu folklorikoa euskal senaren erakusgarri zen neurrian, identitate zeinu zen neurrian.

Identitatearekin lotura prozesua ahuldu denean testuak bere beste balioak agertu ditu, eta sistemak, erdal sistemak, kasu honetan, bere erabakiak hartu ditu, eta, oraingoz, testua toki batean kokatu du. Horrek ez du esan gura, hurrengo edizioetan estrategia bera erabiliko denik, liburua gazte literatura sailetan kokatuz, sistema behin eta berriro indar desberdinen artean bersortzen ari delako. Baina oraingoz esku artean ditugun datuen arabera *Babiloniaren* balorazioa desberdina izan da sistema batean eta bestean.

Folklorearen erabilerak, bada, eragin handia du literaturaren balorazioan, nibelazio funtzioa bete ohi du eta bete du nobela ohiturazalearen kasuan: dena jartzen da maila berean, folklorea eta literatura, eta beraz literatura dena eta ez dena parekatu egiten dira. Folkloreak indar handia du nortasuna adierazi nahi den unean, eta literaturan gertatzen dena zera da: parekatu egiten dela nortasunari buruzko diskurtsoa, identitateari buruzkoa, eta literatura. Biak doaz parean, eta horren ondorioz, literarioa dena eta ez dena, komunikazio testua eta testu simbolikoa nahastu egiten dira.



## 9. Filologizaziorako joera

Hizkuntzen arteko gatazka gertatzen denean, hizkuntza diglosikoaren literaturak filologizaziorako joera agertzen du. Esan nahi da, filologiak erakusten duena, beste barik, agertzen da literaturan. Erabiltzen den eta erabili behar litzatekeenaren arteko kinka argia da hizkuntza diglosikoen literaturan. Literatura horrek estimu handian du hizkuntzaren “aberastasuna”, dela lexikoan, dela hizkuntzaren beste edozein arlotan.

Adibideak gurean aurkitu nahiez, azaldu beharko genuke hainbat euskal idazlek duela “hapaxa”, esan nahi da hizkuntzaren historian behin bakarrik agertzen diren hitzak, erabiltzeko joera.

Filologizaziorako joera horrek gure artean eman ditu adibide garbiak. Ezin kendu dezaket gogotik Jon Etxaideren eleberria, adibidez, beti oharrez, ohar filologikoz hornitua. Jon Etxaideren nobelagintzan esaten ari garena ikusten da, narrazioa, historia baten kontaketa, eta erabiltzen den hizkerari buruzko hausnarketa batera doaz. Bata, kontaketa, orrialdean ematen da, bestea, hausnarketa orrialde peko oharretan. Baina biak daude lotuta idazlearen gogoan, eta hain daude lotuta, Jon Etxaide

ikusten dugula argitalpenez argitalpen bere hizkuntza zuzentzen, ohar gehiagoz hornitzen bere edizioak.

Badugu beste adibiderik ere. Euskal nobelagintza hasten den momentuan idazleek ez dute nobela, edo kontakizuna, bere balio estetikoengatik idazten, bere errepresentazio (gizarte baten errepresentazio) balioengatik ere ez. Euskararen alde egitearren idazten dute, eta horrela aitortzen du batek baino gehiagok: Txomin Agirrek, Kirikiñok, Etxeitak, Lauaxetak berak...

Hizkuntza eta literaturaren arteko jokoan hizkuntzari pisu handia, larregia, ematen zaionean, sortzen da filologizatorako joera hori. Horrela esanda borobila dirudi, baina gero ez da bat ere erraz egiten esatea zer den larregizkoa, edo non dagoen erdibidea. Baina kinkaren zeinu gisa baditugu gure artean bestelako moduak ere.

Agian, gure artean joera horrek izaera modu bi hartzen ditu bere gain:

- Arkaismorako joera.
- Euskalkietako lexikoaren aldeko joera.

Berriro gogoratu nahi nuke joerak deskribatzen ari naizela, eta ez baloratzen... beti gertatzen baita adibideak emateko orduan egoera delikatua gertatzea.

Arkaismoaren balioak era ikaragarri, eta neurri berean, liluragarri batez erabili ditu Anjel Lertxundik *Otto Pette* nobelan, non hizkuntzaren balio espresiboen esplorazio ederra egin den, hain ederra eta hain sakona non ez dakidan irakurleagoak ez duen arazoa izan nobelaren hizkuntzaren aberastasuna jasotzeko.

Tradizioarekin eta tradizioak ematen dituen hizkuntza posibilitateekin elkarrizketa sakona darabil Anjel Lertxundik aspaldi, eta ziurrenik bere idazkeraren ezauzgarri nagusi bihurtu du joera hori. Beste nobelekin kon-

paratuz baina, *Otto Pettek* zuzenago erakusten du hizkuntzaren alde filologikoarekin agerturiko lotura.

Euskalkietako lexikoarekin dugun arazoa ere ez da bat-batean desagertuko. Batua berez ez da sistema aske bat, ezin du bizi euskalkiak ez baditu kontuan hartzen, eta garbiagoa da arazoa lexiko mailan, non batuaren lexiko osoa beste behe-sistema hauetatik baitator.

Literatura historikoan baditugu filologizaziorako joeren beste hainbat adibide ere. Aranatarren “garbizale-tasun” guztia ez litzateke filologizaziorako egindako aha-lerinaren adibidea baino. Lexiko aldetik “bazterretako” lexikoa maitatuz, zaildu egiten zuten irakurketa. Lauaxetak, dirudienez Azkueren *Diccionario de bolsillo*-ren eraginez, arkaismoaren eta euskalkien lexikoaren bideetatik moldatu zuen bere *Arrats Beran* liburua hizkera. Baina hor arazo historikoak badira ere, gaur eguneko elkarrizketa ere badugu euskara batuak euskalkiekin egin behar duena.

Koldo Izagirrek, adibidez, orain gutxi, batuaren —edo agian gaurko idazleen— sei mila hitzekin ez dagoela literatura handirik egiterik defendatu du, eta zentzu horretan, bizkaieraren lexikoaren alde agertu da noizbait, estiloa aberastu nahian.

Iparraldeko idazleek ere badute nolabaiteko bulda bereziren bat euskara batua erabiltzeko orduan, eta lexiko aldetik askotan jotzen dute euskalkietara bere lana egiteko orduan.

Garbi dago hizkera zaildu egiten dela, bai tradizioa joz edo oso zabaldurik ez dagoen hizkera erabiliz, eta irakurle pasibo eta errazaren artean irakurlearekiko hitzarmen berezia eskatzen dutela idazleok, irakurle aktiboa goa lortuz.

Antón Figuerok aurkezten duen ezaugarri hau dela-eta, ohar bi datozkit burura, ez baitzait oso zuzena iruditzen bere hartan ematea beste oharririk gabe.

Momentu batez koka gaitezen A hizkuntzan, esan nahi da literatura normalizatua duen horretan. Pentsa dezagun, adibidez, gazteleraz tradizioarekin lanketan ari den idazle batengan: Miguel Delibesengan, adibidez. Egia da hizkuntza normalizatuak eskola sare indartua duela, literatura instituzioak (“instituzioak” diot, eta ez beste zerbait) indarra duela, nobela zailak idatzi direla, nobela oso luzeak ere argitaratzen direla, eta irakurlea ohitu egin dela nobela zail samarrak irakurtzera. Beraz, badituela guk ez ditugun abantaila batzuk nobelak idazterako orduan eta irakurle goari aurkezteko orduan. Delibesen kasuan, adibidez, tradizioan oinarrituriko nobela idazten duenean, edo arkaismoak erabiltzen dituenan, zer esaten da filologizaziorako joera duela, ala tradizioarekin elkarriketa ederra egin duela? Beraz, egia litzateke hizkuntza normalduetan filologiarako joera hori, tradizioa hornitua den heinean, ahula agertzen dela, baina badirudi ezaugarria bakarrik gertatzen dela, hurrengo puntuan ikusiko dugunez, tendentziaren larregikeria ematen denean.

Gure kasuan, baina larregikeria den ala ez den jakitea zailagoa da (aranismoaren kasua, kenduta, agian, eta berau ikuspegi historikoarekin begiratzen dugulako), sistema literario desorekatua dugulako, euskarazko eskola berria delako, egilearen eta irakurleen arteko hizkuntza hitzarmena beste hizkuntza nagusi horretan baino desorekatuagoa delako. Beraz, kontzeptuaren erabilpena lotua dago literaturaren beraren garapenarekin.

## 10. Hizkerarekiko ardura neurotikoa

Denok ezagutzen dugu euskal literatura euskaraz ikasteko erabiltzen duen pertsona, inoiz entzun dut ez dakit zein idazle idazten hasi zela bere euskara trebatzeko. Literatura, beraz, hizkuntzaren menpe. Ez da harritzekoa gaurko literatura, gure euskal literatura eskolaren menpe dugun aro honetan, eta dirudienez, ez da gurean gertatzen den arazoa soilik, beste inguruetan ere txakurak ortozik omen dabilta.

Bai, baina gurean hizkuntzarekiko ardura neurotikoa garbiagoa dela esango nuke.

Ardura neurotikoa lehenean eragina hizkuntzaren mitifikazioa da, literaturaren ordean hizkuntza jartzen badugu, garbi dago hizkuntzak hartzen duela orduan nagusitasuna eta ez literaturak.

Bigarren ondorio bat ere gertatzen da, testuaren indar estetikoaren, testuaren irekitasuna mugaturik geratzen da. Ardura linguistikoaren menpean jarriz literatura testuaren irekitasuna mugatua geratzen dela esaten dugunean, “irekitasun” hitza erabiltzen dugunean, adierazi nahi dugu testuaren interpretazio bideak itxi egiten direla.

Testuaren alde irekiek ahalbideratzen dute irakurlea haren bidez testuan sartzea eta interpretaziorako bideak zabalik aurkitzea.

Irekitasunaren kontzeptua “Harreraren teoria” deituriko kritika sailetik dator. Harreraren teorian nagusitasuna irakurleari ematen zaio, eta suposatzen da testuak irakurlearen irakurketa errazteko bideak eskaintzen dituela. Adibidez, eta Euskal Herrian denok, idazleak eta irakurleak, generoen aurka agertzen gara, ez dugu kontuan hartzen generoa bera zeinua dela interpretazio zuzenerako; beste zeinu batzuk dira portadan jarritako irudia, idazleari eta obrari buruz esaten zaiguna, honi “paratextu” deitu izan zaio, testuaren ondoan, eta irakurketaren laguntza gisa jartzen den guztia; testuaren barnean, bertan, beste zeinu batzuk zuzentzen dute irakurketa. Bernardo Atxagaren *Zeru horiek* nobelan, zeruak pertsonaiaren izaera adierazten du. Baina irakurketa bideratzen duten zeinuak diren bezala, testuaren barnean badira “isiltasun” tokiak, non idazlea isiltzen baita: kapituluaren bukaerak, testuaren barnean zuriz ixten diren aldeak. Isilune horiek gidatzen dute irakurlearen interpretazioa. Isiluneetan testua irekita, zabalik, dago, eta irakurleak bere interpretazioa eranstean dio testuari.

Diglosia, hizkuntzen arteko kinka, gertatzen denean, irekitasun hori, testuak isiltzen duen aldean agertzen dena, eta interpretazio bidea dena, gutxitu egiten da, eta interpretazio bideak itxi egiten dira, eta irakurleari eskatzen zaio problema “praktikoa”, gaurkoa, ideologikoa, ikus dezala testuan, bere irakurketaren ateak itxiz eta interpretazio bideak itxiz.

Antón Figueruok adierazten duenez,

“Nun contexto conflictivo confórmao conflictivamente, e o contexto aparece así como unha interfe-

rencia non normal no funcionamento do acto estético” (Figuerola, 1988, 24).

“Gatazka egoera batek gatazkaren menpean osatzen du [testua], eta horrela ingurua interferentzia anormal gisa agertzen da ekintza estetiko sortzeko orduan”.

Beste hitz batzuekin esateko gatazka bera bihurtzen da gai. Hizkuntzen gatazka, eta orduan, filologiak agintzen du, edo gizartearen gatazkak, eta orduan, beste arrisku baten erdian kokatzen da idazlea, testua eta egoera historikoa *zuzenegi* lotzearena, garbi baitago literatura testu guztiak historiarekin lotuak direla.

Bigarren arazo hau laster aztertuko dugu, edo sako-nago agertuko. Gera gaitezen orain lehenengo arazoarekin, hizkuntzen arteko gatazkarekin, alegia.

Garbia da idazleen artean gizartean euskaraz ematen ez dena euskaraz emateko arazoa. Arazotxo horrek, gainera, bere historiartxo egin du gure artean, eta Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* nobela gogoratzea besterik ez dago.

Lan horretan, inon baino argiago, beharbada, agertzen da literaturaren arazoa, bere izaera ez da egiazkoa izatea, baizik eta egiantzekoa, hau da, ez da errealista izatea, soilik, baizik eta sinesgarritasuna azaldu behar du. Eta nobela hori agertu zen garaietan ez zen sinesgarria guardiak euskaraz aritzea, eta horregatik ari dira erdaraz. Baina, ondoren, telebista agertu zitzaigun eta han denek —beltzek, gorriek, txinatarrek, guardiek, PNVko eta HBko agintariek—, egiten zuten euskaraz, eta ohitu egin ginen, sinesgarri bihurtu zen, fikzioan edonork zekien euskara. Batez ere, erraz fikzionalizatzen diren arketipoek (bake-roak, indioak, kamareroak, erahileak, poliziak) euskaraz

ondo ematen dute. Beste kontu bat da esperientziarekin zer egiten dugun, hau da, gaurko Donostiako edo Bilboko alkatea, gaurkoa eta ez edozein alkate, euskaraz emateko gai garen nobela batean. Beste era batekoa da esperientziaren pisua, eta horretan bideak bere kezka agertzen du berriro.

Hala ere, arazoak sortzen dira drogazaleen hizkerarekin. Euskarak ez omen zuen biderik, euskaraz ez zen gai bigarren mailako erregistroa sortzeko. Egin dira aha-lerinak.

Edorta Jimenezen esplorazioa, beste bide batetik joan da. Bizkaierak gordin-gordinean egiten dituen akats morfologikoak gehitu ditu bere idazkerara, morfologia ordenaren hausketa errespetatuz, adibidez. Beti ere pertsonaiek hitz egiten dutenean, eta narratzaileari araua jarraitzen duen ahotsa jartzen diolarik. Bideak dira, bai.

Baina badira mutur bi behin eta berriro mamu gisa agertzen zaizkionak idazleari: erderakadena da bata, eta Ibon Sarasolaren errezeta liburua gogoratzerik baino ez dago, inoiz baino usuago erabiltzen den bidea dela konturatzeko; bestea jatortasun larregikoa litzateke, inoiz txokokeria deitu izan dena, edo “bazterreko” hitzaren erabilpena.

Denok ezagutu dugu literatura hiztegi ongi horniturik irakurtzen genuen aroa. Literatura hiztegi baliatuz irakurtzea ez da bat ere ariketa atsegina. Agian, irakurtzen hasten garenean ezinbestekoa da, baina badira idazleak —irakurleak bidea egin duenean ere— hiztegiarekin irakurri beharrekoak. Orain gutxi arte ez zen bat ere arraroa nobelaren, edo dena delako liburuaren atze aldean hiztegi bat aurkitzea, irakurlearen lagungarri. Garbi dago aipatzen dugun neurosiaren adibideak direla. Baina badi-



ra beste zenbait ezusteko idazle eta irakurleen artean literatura diglosiko batean.

Beharbada idazle batek sartu du arkaismoaren bat, baina sistema desorekatua denez, iragangaitza, ez du horrela ulertu irakurleak, baizik eta honek pentsatu du gaztelera hitz bat aldatzeko hiztegi normalizatuan sartu den hitz berria dela. Horrela gaizki ulertuak gertatzen dira irakurle eta idazleen artean, eta testuaren irekitasunak bere arazoak ditu.

Eta gai honekin sartzan gara beste ezaugarri batean, zeren honelako egoera batek arazoak sortzen baitizkie irakurleari eta idazleari.

## 11. Igurikimen ortzi mugaren falta

Ortzi mugaren kontzeptua “Harreraren teoria”tik datorren kontzeptua dugu. Idazle batek bere lehen lana argitaratzen duenean, nolabaiteko —eta zehazteko oso erraza ez den— erantzuna jasotzen du irakurleen aldetik. Ezagun bihurtzen da, irudi bat osatzen du, eta irakurleak idazle horren beste liburu edo lan baten aurrean badu aurre iritzi bat, badu itxaropen bat buruan eginik. Eta gerta liteke bigarren lan horrek bere iritzia bermatzen etortzea, edo ukatzera, haren itxaropena betetzea edo zapuztea, eta lotura horretan agertuko da “itxaropen ortzi muga”, irakurleak idazle batengandik itxaroten duena, edo hobe, irakurleagoak idazle batengandik itxaroten duenari deitzen zaio “igurikimen ortzi muga”.

Idazleak “igurikimen ortzi muga” horretaz jakitun izaten dira, eta tendentzia edo estetika aldatzen badute, liburua agertuaz batera egiten zaizkien elkarrizketetan obra irakurtzeko moduez hitz egiten dute, irakurleagoaren “igurikimen ortzi muga” hori aldatuz, irakurketa neurri baten, “gidatuz”.

“Igurikimen ortzi muga” zer den adierazteko oso adibide garbia da, adibidez, Jon Arretxeren kontagintza. Eta interesgarria, alde bitatik: gai izan da bere lanari buruz, irakurleagoak izan duen “igurikimen ortzi muga” aldatzeko, eta era berean jarraitu du bide berriko “igurikimen ortzi muga” bermatzen eta mantentzen.

Jon Arretxek bidaia liburuak idatziz eman zuen eza-gutzerara bere narratiba. Egia esan, lehenago hasi zuen bere kontagintza lana, baina ipuin haiek ez zuten oihartzun handirik izan eta bidaia liburuaren bidez egin zen gure artean ezaguna. Hara non baina, irakurleagoaren “igurikimen ortzi muga” aldatuz, Unibertsitatearen eta ikasleen giroko ipuinak idatziz asmatzen duen bete-betean *Ostegunak* deituriko liburuaren bidez. Bidaia liburuak argitaratzen jarraitu izan badu ere, *Ostiralak* deituriko liburua argitaratu duenean, irakurleagoak badaki aurreko ipuin liburuaren klabeekin egingo duela topo. Jon Arretxek “igurikimen ortzi muga” hautsi egin du generoa aldatuz, bidaia kontaketatik komedia moduko ipuinetara igaroz, eta irakurleagoaren “igurikimen ortzi muga” indartu du *Ostegunak* deiturikoaren ondoren *Ostiralak* deiturikoa argitaratuz. Honela pistak eman dizkio irakurleari.

Fikzioan sartuz, edo asmakizunean, igar daiteke gainera, idazleak trilogia idazteko asmoarekin badabil, hurrengoan *Larunbatak* deiturikoa aurki dezakeela irakurleak liburu dendetan. Baina, beste garapen bat ere gerta daiteke: idazleak pentsa dezake gauzak hain erraz jartzeaz irakurleari nekatua dagoela eta erabaki dezake klabea apurtzea, irakurleagoaren “igurikimen ortzi mugarekin”, esperantzekin, jolastuz. Baina hori geroak esango du, geroak esango digu nolako asmoak dituen Jon Arretxek batekin ala bestearekin lan egiteko.

Harreraren teoriaren barnean eskola bi daude irakurle goaren “igurikimen ortzi muga” zein izan daitekeen jakiteko.

Eskola batek soziologia maite du, eta inkesten bidez azaltzen du zein den garai bateko —garai honetako— irakurleen itxaropen moldea, zeintzuk diren haren asmoak.

Beste eskola bat, hermeneutikoagoa da: interpreta-zioaren bideak erabiltzen ditu, eta egunkarietan agerturiko edo idazleekin egindako elkarrizketen bidez, edo kritikak emaniko iritzien bidez osatzen du “igurikimen ortzi muga”ren nolakotasuna.

Horri guztiari beste zeinu batzuk ere gehitzen zaizkio. Adibidez, liburuko “paratestuak”, testuaren inguruko zeinuak, oso garrantzizkoak dira idazleak nolako “irakurlea” nahi duen adierazteko. Liburuaren izenburuak, liburuaren diseinuak, idazleari buruz esaten zaiguna, gaiari buruzko laburpenak, horrek guztiak hitz egiten digu “itxaropen ortzi mugari” buruz, edo behintzat, hitz egiten du idazlearen asmoei buruz.

Beste alde batetik, testuaren barnean, fikzioaren barnean, badago “irakurle implizitua” deituriko irudia ere, badago idazleak egin duen “irakurle idealaren irudia” implizituki testuan.

Atxagak, adibidez, noiz edo noiz azaldu du berak zer bait idazten duenean, irudikatzen duela, imajinatzen duela, teatro batean dagoela eta bere testua irakurtzen duen artean, publiko oso desberdina duela entzule, eta irakurriaz batera, publiko desberdin horren erreakzioak ikusten dituela, edo behintzat sumatzen, eta “irakurle” irudikatu horiek laguntzen diotela zuzenketak egiten. Era horretan oso era juxtu batez azaltzen zaigu idazleak baduela irakurle baten irudia testua egiten duen artean, nori zuzentzen zaion ongi —edo gaizki— ikusten duela.

Baina gero testuan irakurle horri zuzenduriko oharrek agertzen dira, eta “irakurle irudi” hori testuan agertzen den neurrian, da “inplizitua”.

Elementu horiek ere garrantzizkoak dira nolako “igurikimen ortzi muga” sortzen den erabakitzeako orduan.

Bada, gure gaira itzuliz, literatura diglosikoetan, “igurikimen ortzi muga” hori ez da bat eta bera idazlearentzat eta irakurlearentzat, aldakorra da, ez dago geldian. Idazlearen eta irakurlearen artean sortzen den aldea deskribatu dezakegu esanez, desberdinak izan daitezkeela bataren eta bestearen euskara mailak. Gerta daiteke idazlearen euskara maila irakurlearena baino altuagoa izatea, eta alde honetatik datoz euskal liburu askotan aurkitu izan ditugun hiztegiak, irakurlearen lagungarri. Alde hori murriztu egiten da irakurleak irakurketaren zaletasunez euskara gehiago ikasten duenean, edo eskola indartzen denean eta, ondorioz, gizartearen irakurketa maila eta euskara maila jasotzen denean. Gorago esan dugun bezala, irakurtzen hasten garenean, normala da hiztegia erabiltzea, anormala dena da hiztegia erabiltzeko apropos egiten den literatura lana.

Hiztegi eta guzti argitaratzen ziren liburuak egoera biren ispilu ziren, batetik euskara batu baten faltarenak, eta irakurlearen irudi batenak. Euskara batu baten faltan, idazleak buruan egiten zuen irakurlearen irudian falta ziren euskalki desberdinetako ezagupen zuzenak. Idazleak bazekien, neurri intuitibo baten, irakurleak ez zituela ezagutzen euskalkietako forma desberdinak, eta bazterretako hiztegia erabiltzeko tentaldia hor zegoenez, irakurlearen hizkuntza konpetentzia goratu nahi izaten zen ditzosozko hiztegi horren bidez.

Mikel Zarate ere gogoan dut, irakurlearen bila bere lanetan. Idazlearen lana bolo jokoarekin konparatzen

zuen, bolo bat bota, esaldi bat osatu —erregistro altuko— eta irakurleak ez zuela ulertuko sumatzen bazuen, beste errazago bat asmatu, bigarren boloa bota, espresio juxtu eta ulerkorren bila. Zaratek ere “irakurlearen irudia” zuen buruan.

Gure artean euskara errazaren eta zailaren inguruan erabili ditugun eztabaidak izan dira irakurle irudi baten bila egindako saiakerak ez eskolarik ez hizkuntza batasunik, ezta erregistro arruntik ere ez zeuden garaietan. Gaur ere, eskola eta euskara batua, eta euskara batuko hiru mila hitz arrunt eta orokor ditugunean, ezin da eztabaida amaitu, zeren gutxi baikara, eta maila desberdinetako irakurleak bilatzeko eskubidea dute idazleek. Juan Mari Lekuonak irakurle inplizitu jantzia nahi du bere lanentzat, kultura humanistiko ongi hornitua, Koldo Izagirrek beste bat bilatzen du, eta haur literaturaz ari denak beste bat. Eta hari egokituak dira haien hizkuntza erregistroak ere: gerra aurrean Lizardik esaten zuen bezala, Jauregiren irakurlea, poesia zaila gustuko zuena, jasoa, Gregorio Mujikarena, kultura bazuena, baina exigentzia handirik ez zuena erakusten irakurtzeko orduan, eta Txirritarena, literatura lanetara zuzen-zuzenean heldu nahi ez zuena. Denak behar izango ditugu, eta horren beharrean ere egon bagaude.

Literatura diglosikoetan, “igurikimen ortzi mugaren” desorekaz gertatzen dena zera da gaizki ulertuak gertatzen direla idazle eta irakurleen artean. Hark bazterreko hitza erabiliko du, aberastasunaren izenean, eta honek ulertuko dio gaztelerazko hitza ezkutatzeko erabiliko hitza dela. Hark erregistro altuko hitza erabiliko du, eta honek gaztelerazko influentzia dela ulertuko du. Zertara dator bada Ibon Sarasolaren azken ahalegina euskara

zuzentzeko? Erregistroak bateratzeko ahalegin gisa hartzen dut nik behintzat.

Askotan gertatzen dena da, beraz, idazleak irakurleaz egin duen irudiak ez duela erantzuten, eta bien arteko fikzioko “hitzarmenak” ez duela funtzionatzen. Fikzioko lan bat irakurtzen hasten garenean, pentsatu behar da idazleak hitzarmen bat proposatzen diola irakurleari, esaten ari zaiola irakurtzera doana, fikzioa dela berez, poesia dela, edo nobela dela. Irakurleak testua zuzen irakurtzeko “hitzarmen” hori onartu egin behar du. Ezin du adibidez, ipuin bat irakurri benetako berria balitz bezala, edo notizia historikoa balitz bezala. “Hitzarmena” ez bada onartzen, gaizki eginiko irakurketak agertzen dira.

Gurean, “igurikimen ortzi mugaren” arazoa gerta daiteke testuen irakurketan, eta gerta daiteke testu banean agertzen diren hitz arruntekin ere. Alegia, idazle baten pentsa dezake irakurleak maila bateko hitzak itxaroten dituela (batuko hitzak, bizkaierazko berbak) eta horietan erabili.

Antón Figuerola honela mintzo da gailegoaren kasua aipatzerakoan:

“Unha situación coma a da lingua galega onde de feito se utilizan polos falantes grande número de castelanismos (que na comunicación literaria poden ser ou non interpretados coma tales por autores e lectores ..., coas consiguientes consecuencias en lectura e escritura), onde as variantes dialectais son grandes, onde hai toda unha serie de hiperenxebrismos (txokokeriak) absurdos —pero tamén admitidos por boa parte dos falantes como norma—, onde mesmo a veces se oe reivindicar illadamente a posibilidade de inventar palabras e normativas individuais, etc., etc., unha situación lingüís-

tica como esta, dicimos, incidirá directamente na comunicación literaria de maneira moi grave. Frequentemente autor e lector non saberán a que aterse. O autor no controlará o *minimum* habitual das reaccións do lector” (Figuroa, 1988, 28).

“Galizierako kasuan, non hiztunek gaztelerazko hitz ugari erabiltzen duten (komunikazio literarioan idazleek eta irakurleek horrela ulertu ditzaketanak —edo ez—..., horrek komunikazio literarioan ukan ditzakeen ondorioekin), non dialektoen aldaerak handiak diren, non txokokeria absurdu asko erabiltzen diren —baina neurri berean, hiztun askok arau gisa onartuak diren—, non batzuetan erribin— dikatzen den hitz berriak eta arau indibidualak sortzeko ahalmena, e.a., e.a., honelako egoera linguistikoak eragin larria ukanen du komunikazio literarioan. Sarri idazleek eta irakurleek ez dakite zein bide hartu. Idazleak ez du irakurlearen erreakzioen *minimum*-a ezagutuko”

Ez dakit hiztegiaren aldetiko nahasketa dugun jadanik gure artean, baina egia da literaturan hiztegiaren aldetik, erregistro horiek aurkitu ditzakegula euskaraz: erderakadak, euskalki desberdinetako hitzak, hitz asmatuak, garbizalekeriatik harturiko hitzak, norberaren norma...

Egoera honek zerikusi handia du normaren desorekarekin. Norma zehaztugabea denean, edo ez badago ongi zabaldua hiztunen artean, ez badago ongi errotua, idazlearen askatasunaren eta irakurlearen igurikimen ortzi mugaren artean desorekak gertatuko dira. Ez da soilik gertatzen euskal literatura euskara ikasteko irakurtzen dela, horrez gain, irakurtzen ari den bitartean, irakurleari behin eta berriro eskatzen zaio kodigoari buruzko hausnarketa bat.



Beste eraginik ere ikus dezakegu. Harreraren teoriak dioenez, interpretazio bide bat gertatzeko, testuaren barnean kokatzen dira isiluneak, testuak ez dio dena, beti geratu behar dira elementuren batzuk ezkutuan eta isilik. Fikzioak ez du dena kontatzen, garrantzitsuena kontatzen du, aldiz. Beraz, isilune momentuetan anbiguotasun uneak gertatzen dira, irakurleak bete beharko dituenak bere interpretazioa sortzeko asmoz.

Joseba Sarrionandiaren isiluneei buruz, Aitzpea Azkorbebeitiak eginiko lana gomendagarria litzateke. Isilune horretan anbiguotasuna nagusitzen da, eta interpretazio bidea zabaldu egiten da. Norma desorekatua denean, anbiguotasun hori areagotu egiten da, edo irakurleak beti pentsatzen du, hitzen bat ezagutzen ez duelako, erregistro okerrean kokatzen duelako, hitz horrek baduela, berez ez duen edo autoreak eman ez dion, anbiguotasuna, interpretazio bidea.

Hau guztia noski, matizatu beharko da. Irakurketa okerren bidea egoera askok baldintzatzen dute. Adibidez, ikusi beharko litzateke zein mailatan dagoen hizkuntza minorizatuaren diglosia egoera (adibidez, nobelen ondorengo hiztegiak aspaldi desagertu ziren gure edizioetatik, eta horiek baino lehenago edizio elebidunak, gaztelera eta euskaraz egindakoak, euskara hutsez ulertuko ez zirelakoan), testuaren tipoa (ez baita berdina testu poetikoa, zeinetan anbiguotasun handiagoa den, edo hizkera arruntera hurbiltzen den testua), irakurleak ama hizkuntzarekin duen lotura (euskara aberatsaren jabea eta euskara galtzar duena ez dira irakurle mota berdinak), euskara ama hizkuntza izateaz gain eskola hizkuntza izan duena egoera hobean dago, eskola hizkuntza gaztelera izan duenaren ondoan...

## 12. Idazleen traiektoria falta

Harreraren teoriaren barnean aurkitzen dugun “igurikimen ortzi mugaren” kontzeptuaren arabera ulertu beharko litzateke ezaugarri hau, eta baita ere idazlearen profesionalizazio prozesuan, literatura sistema bihurtzen den momentuan gertatzen den profesionalizazio egoerarekin, hain zuzen ere.

Idazleak ez duenean ingururik bere lana indartzeko eta eusteko, noizbehinkako idazle bihurtzen da.

Arazoak baditu ezpal desberdinak. Batetik, traiektoria faltak badu eraginik idazlearen bizitzaren barnean. Idazleak traiektoriarik ez badu, badu “ezikusia” izateko arriskua, nabarmendua ez izateko arriskua. Egia da badi-rela obra bakar batekin oihartzun zabala izan duten idazleak, baina egia da baita ere, obra bakarreko idazle askorekin dugula betea euskal literatura. Sistemaren ahuleziarekin egiten dugunean topo, normalagoa da obra bakarreko idazleak aurkitzea. 1980. hamarkadan idazle askok obra bakar bat idatzi zuten eta gero beste lan batzuetara igaro ziren. Beste batzuk, ordea, literatura barrenean lan zabala egin dute. Baina zergatik ditugu horrenbeste idazle obra bakarreko? Garai klasikoetan, behar bada, esplika

dezakegun fenomenoa da, baina orain urte gutxi batzuk direla zergatik utzi zioten literaturari?

Erantzun posible bat litzateke idazlearen borondatea interpretatzea, eta suposatzea idazle hori literaturan sartu zela ez horrenbeste literaturagatik baizik eta euskaragatik. Euskararen militanteak ziren, eta ez literato petoak. Bere lana hor dago, hala ere, garai baten testigantza emanaz, eta orduko idazle askok gaur egun jarraitzen dute euskararen arloan lan egiten, irakaskintzan zein kazetaritzan, edo beste lan batuetan. Beste erantzun bat ere aurreratu dezakegu: sistemak ez zien lagundu, sistema ahula izanik ez zuten aurrera jarraitzeko indarrik aurkitu.

Dena delako arrazoiengatik kontua da gure literaturan fenomeno arrunta izan dela liburu bakarra argitaratu ondoren literatura bertan behera uztea. Fenomeno hori gutxitu egin dela esan dezakegu, eta gaur egun, panorama ditugun idazleek liburu bat baino gehiago dituzte liburu dendetako apalategietan. Sistema indartu zaigu, bai. Eta indartzen den neurrian beste fenomeno batek ere toki urriagoa du gure artean: genero guztiak lantzen dituen idazlearen irudiarena. Denetarik egin behar zuen idazlearen irudiaren aurrean, gaur egun idazlearen lana egonkorragoa da: nobelistek nobelak idazten dituzte eta poetek poesia, nahiz eta genero bion arteko aldaketarik gertatu, baina, idazle entziklopedikoren bat geratzen bada, jada ez du genero bakar bat baino lantzen. 1985. urtearen inguruan poetak nobelara igaro ziren, eta genero bien arteko zubiak zabalik badaude ere, batzuk (Pako Aristi, Harkaitz Cano) poesia zein kontaketa landu badute ere, egonkortasuna nagusi da, nahiz eta noizbehinka haur eta gazte literaturaren tentazioetan jausi den idazlerik badugun.

Ez gaude, ez, egoerarik normalenean, baina sistema indartzen den neurrian, badirudi irakurlearen buruan,

irakurlearen “igurikimen ortzi mugan” idazlearen irudia garbiago agertzea estimatua dela (hau poeta duzu, beste hori narratzailea, hark saiakera idazten du). Esango nuke, nahiz eta genero batetik bestera aldaketak badiren, eta egoten jarraituko duten arren, finkotasuna, egonkortasuna geroago eta handiagoa dela. Eta sistemak horretara jotzea agintzen duela.

Generoz asko aldatzen den idazleak ezusteak sortzen ditu “igurikimen ortzi muga”n. Beste egoera bat da idazleak genero batean izena lortu ondoren, generoz aldatzea erabakitzen dueneko, Jose Luis Otamendiren kasuan, adibidez. Orduan, irakurlearen aurreiritzia ohitua dago, eta onar dezake.

Baina traiektoria faltak badu, baita ere, eraginik irakurlearen aldetik. Traiektoriarik ez dagoenean, irakurlea ez da “idazkera” baten moldeetara ohitzen. Badirudi obra bakoitzak sortu behar duela bere irakurlegoa, eta horrela ez da idazkeraren finkotasunik sortzen, beste izen batekin, ez dago tradizioz. Aldian aldiko irakurlea sortu beharra dago eta irakurleak irakurtzen duen aldi bakoitzean sortu behar du idazlea zein idazkerarekiko “ohitura”.

Sisiforen antzera literaturak behin eta berriro lan berak egin behar ditu, behin eta berriro prozesuak errepikatu.

Traiektoriarik ez dagoenean, Sisifo da nagusi.

Idazle baten traiektoriarik ez dagoenean, bere irudia difuminatu egiten da, aldian aldiko irakurleak behar ditu. Baina zer gertatzen da literaturak berak ez duenean traiektoria handirik, tradizioaren arazoarekin egiten dugunean topo?

Orduan intertestualitatearen arazoa sortzen da. Literatura bat testuz egindako ehuna da, ehun horretan aurreko testuen oroimenez eginiko aipamenek hari gisa funtzionatzen dute.

Idazle batek testu bat aipamenez egiten duenean, nola jakingo du irakurleak aipamenak aipamen gisa ulertuko dituela? Nola jakingo du keinu dena keinu gisa hartuko duela? Gure azken literaturan, gure altxor literarioa komun bihurtu dugunean, arrunta da Gabriel Arestiren, Joseba Sarrionandiaren, Bernardo Atxagaren edo Mikel Lasaren aipuez egindako pasarteak aipamen gisa ulertzea, haien aipuek identifikatzea eta idazleak eman nahi dizkieten zentzuak zuzen ulertzea, irakurketa okerrik egin gabe. Argiak dira, baita ere, Lauaxetak, edo beste batzuk Lizardiren puskekin egindako testu zatiak identifikatzea. Ez zaizkigu hain nabarmenak egiten, adibidez, Lauaxetak berak bere testuetan sarturiko Emeterio Arreseren edo Jautarkolen testuak.

Intertestualitate horretan, tradizioaren sorketan, idazlea tradizioan kokatzeko ahaleginean, idazleak arazokak ditu, eta ez soilik arazo linguistikoak (zein euskara mota ezagutzen du irakurleak?) baizik eta arazo testualak. Zein irakurketa suposatuko dizkio irakurleari? Bereak? Ala beste batzuk? Euskaraz soilik irakurtzen du irakurle gai horrek, ala batez ere erdarazko liburuez du hornitua bere liburutegia?

Idazleak eta honek bere liburuentzako nahi duen irakurle gai horrek irakurketa bateratsua behar dute, neurri batean, behintzat, bestela nola jakin lezake idazleak bere isiluneetan irakurleak berak bidaltzen duen mezua ulertuko duela?

Antón Figueroren hitzak berriro hona ekartzeko:

“Zein testu, eta zein hizkuntzatakoak, uste izango du idazleak irakurtzen dituela irakurleak baldintza hauetan? Nola asma lezake irakurleak bere isiluneak —edo silepsiak— beteko dituenik? Irakurketak

berak ere bere arazo bereziak izango ditu. Irakurketa guztiak bricolage lana badira nolako pieze-kin egiten du lan irakurleak egoera diglosikoan? Egoera horretan “material eskasa” dago, berregiteko gutxi, ebokatzeko testu urri, eta kanpoko materialetakoa pieza asko” (Figuerola, 1988, 33).

Esaldi honek beste arazo batera garamatza. Zer da hobe tradizio urriko literatura batean lan egin, eta orduan dena “originala” dela irudituko zaigu edo tradizio luzea duen hizkuntza batean lan egin? Inoiz Bernardo Atxagari entzuna diot, baina aspaldiko iritzia da, eta beharbada, ez da gaur berarekin bat etorriko, berak gurago zuela euskaraz lan egin hizkuntza honetan denak ematen zuelako “berri”, garai batean, idazten zena idazten zela, “originalaren itxura” hartzen zuen, literatura esploratu gabe agertzen zen, eta, beraz, sorkuntzarako bideak zabalik agertzen zituen.

Beste idazle batzuk, ordea, tradizio faltaren pisua nabaritzen dute, tradizioa beti delako lagungarri, bide bat, sare bat osatzen duelako, kontraste modu bat, eta orduan, garbi dutelako nondik edo zertatik urruntzen diren, zer berritzen duten.

Tradiziorik ez badago, nola esan dezakegu egiten duguna originala dela. Edo garbiago esatearren nola desberdindu “berria” dena eta originala? Eta nola jakin zein den irakurlearen erantzuna?

Bernardo Atxagak, abangoardiaren lilura galdu badu ere, tradizio batean sartu zuen bere idazkera (Pello Errotaren biografia bere alabak emana), tradizio honetan irakurlearekin bat egiteko, eta, ondoren, hau urrunago eramateko.

### 13. Zentzu ludikoa eta zentzu epikoa aurrez aurre

Figuroaren ustetan, eta hipotesitik hasiko gara, literatura diglosiko batean, joko estetikoaren zentzu ludikoa desagertu egiten da, eta zentzu epikoa indartu.

Hipotesi hori gure literaturan ere gertatzen dela erakustea zaila ez bada, esaldiaren azpian agertzen diren zenbait iritzi ideologiko aztertu beharko ditugu lehenik.

Gure euskal literaturaren ikuspegitik lehen-lehenik entzungo genukeen galdera hauxe izango litzateke: zergatik uste izan behar dugu zentzu ludikoa estetikoa dela, estetikarekin lotzen dela, eta zentzu epikoa ez? Euskal literaturan ibili dabilenak badaki, gehien batean euskal literaturan gure herriak bizi duen “egoera” liburuetan agertzeari deitzen zaiola errealismoa, badaki literatura konprometitua maite dela, badaki jokoa, sufrimenduak irauten duen artean, ez dela maitatuegia, laburtzarren euskal literaturan dabilenak badaki zentzu ludikoa aipatzen den bakoitzean aurreiritzi ideologiko baten aurrean gaudela, zentzu ludikoa esaten denean eta hau goraiatu, ziurrenik, infiltratu baten aurrean gaudela.

Gure inguruan mesfidantza handia badago ere zentzu ludikoaren aurka, eta gure gizartean zentzu epikoa gehiago maite bada ere, gehiago baloratu, azken batean, zentzu ludikoaren definizioa azaldu behar dudala iruditzen zait, jarraitzen dugun idazlearen pentsakizuna osotasunez eman beharrean aurkitzen garelako besterik ez bada ere.

Figuroaren ustetan, testu estetiko oro testu konprometitua da, historiatik ihes egiteko modurik ez duelako, konprometitua da berritzailea delako, eta gizarteak egonkor egiten dituen presupuesto estetikoaren aurka doalako. Egia da gure hizkuntzaren literaturaren barnean ez dela garbi geratzen zeintzuk diren “gizarteak egonkor” egiten dituen presupuestoak, ez baita garbi zein gizartek —“abertzaleak” ala “orokorrak”— egiten dituen presupuesto horiek.

Estetika aldetik (eta ideologia aldetik ere, zergatik aipatu ez?), errealitateari buruz, eta errealitatean agertzen diren harremanei buruz ikuspegi bi agertzen dira gurean, eta nahiko latz eta gogor agertu ere. Beraz, inork ez daki, edo hobe, “ofizial” hitza ulertzeko modu bi daude, “errealitate” hitza ulertzeko diren beste, behintzat. Beraz, zer ote dira “gizartearen iritzi egonkorrak”? Batzuk ala besteek jartzen dituztenak?

Errealitatearen mugetan galdurik gabiltza. Behar bada, horregatik agertzen dira gure artean mapei buruzko aipamena izenburuan daramaten horrenbeste liburu: *Galderen geografia*, Felipe Juaristi, *Kartografia*, Rikardo Arregi Díaz de Heredia. Agian gure galtzeko zoriarekin lotuagoak daude izenburu horiek eta ez Almudena Grandesen *Atlas de geografia humana* liburuarekin.

Baina suposa dezagun, une batez, aurrekoa askatu ezin dugun korapiloa denez, zentzu ludikoaren agerpena



orain gutxi literaturaren teorian “mundu posibleen eraketa” deituriko teoriarekin loturik egon dela. Teoria honen ustetan, literatura izan litezkeen mundu posibleen eraketa baino ez litzateke, irudimenaren legeen arabera sortzen den mundu bat, eta ez testuaren barne eskakizunetik sorturiko modu bat, barne sare batek, barne legedi batek sorturiko testu bat. Bada legeen agerpenean, jokoak, zentzu ludikoak garrantzia hartzen du, jokoaren bidez lege berriak asmatzen direlako, lege konplexuak, mundu hori sortzeko orduan.

Beraz, zentzu ludikoaren defentsak badu bere zentzua literaturaren barnean.

Zentzu ludikoa loturik dago, baita ere, abangoardiaren legeekin. Bernardo Atxagaren literaturan adibidez, OULIPO taldeak eragina izan du. OULIPO taldeko idazleek idazten hasi aurretik legeak jartzen zituzten, eta lege horien arabera idazten zituzten euren testuak. Ezaguna da, adibidez, Georges Pérecek idatzi zuen “Desagertua” deituriko nobela, non ez baitzen pertsonaia desagertzen, baizik eta “e” letra, frantsesez oso ugaria dena, eta beraz, “e” letrarik ez zuten hitzen bidez nobela oso bat idaztea izan zen Perecek egin zuen ahalegina. Beste adibide bat eman dezakegu Italo Calvinoren “El destino de los castillos cruzados” obra aztertuz. Lan honen egitura karta joko batekoa da. Idazleak taroteko kartak erabiliz idatzi zuen obra. Taroteko kartak zabaltzen zituen eta agertuen arabera idazten zuen bere lana. Bigarren molde honetan, idazteko modua kasualitatearen eskuetan uzten dugu, eta egitura sortzeko orduan, jokoak —karta jokoak— toki handia du, ikusten dugunez.

Adibide biotan zentzu ludikoaren modu desberdinak ikusi ditugu. Lehenak zerikusi handiagoa du estilis-

tikarekin, idazteko idazkera zentzuarekin, eta bigarrenak lanaren moldaketarekin.

Alde olgetari hori mantendu du Bernardo Atxagak. Batez ere, lehena. *Groenlandiako lezioa* horren adibide garbia da, zeren alfabetoak osatzearen jokia gorago emandako adibide bion frogatuta ederra da. Alfabetoak idazkera moldatzen du, eta lana egituratu egiten du. Baina alfabetoaz ari garela, moldapen gogoangarri bi ekar ditzakegu bertora: lehena *Obabakoak* lanean dago. Irakurleak gogoratuko duenez, ipuinak orden alfabetikoan emanik daude aurkibidean, beste aldetik, aipaturiko *Groenlandiako lezioan* letrak hasten direnean hitz egiten bakoitza berari dagokion errepikapena erabiliz mintzo da, “A”k hitz egin behar badu, adibidez, “a”z hasitako hitzen bidez mintzatuko da, “E”k egiten badu “e”z hasitakoe-kin, eta abar.

Zentzu ludiko hori agertuko da, neurri baten, behintzat, *Zeru horiek* obran ere, zeren pertsonaiak, Irenek, azken batean, bere erabakiak hartuko baititu, taldeaz aparte, eta ez da hori normalean errealitatean gertatzen dena, eta ez da Irenek duen, erabakiaren eragina, harrera normalean errealitatean gertatzen dena kartzelatik irteten duen batekiko. Horregatik, agian, aipatu izan da, eta gogor juzkatu, nobela ez doala ideal abertzaleen alde. Joko estetikoak agertzen dugularik, agian, esan behar genuke, zentzu olgetari bat dagoela azpian. Honelako jokoren bat: imajina dezagun, pertsona bat bakarrik, anderea bere bakartasunean, presio biren artean, eta idatz dezagun nola moldatzen den bakartasun horretan. Lege batzuk jarri dira idazten hasi aurretik, teoria matematikoa, edo teoria morala balitz bezala, eta gero kontakizunaren legeak jarraitu dira.

Madrilgo nire adiskide nobelagile batek azaldu zidan behin, ez zitzaiola gustatu nobela, azken batean, aipatu ezin zezakeen errealitate batez mintzo zela, eta hori nabaritu egiten zitzaiola, eta berak ez zuela nobela bukatu. Zirrara handia egin zidan iritzi horrek, eta aldi luze batean hori egia zela pentsatu nuen, baina olgetari batentzat zer desafio indartsuagoa egon liteke, ezin aipatu duguna, aipatzea baino. Perecen “Desagertua”ren alderantzizko jokoa da hau, obra horretan zerbait desagertzen bada, hemen zerbait agertu egiten da.

Baina zentzu jokalariak badu beste zentzurik ikuspegi honetatik. Literatura berria ikusteko egina dago, berri daitekeena begi berriez ikusteko:

“Esperientzia estetikoak bizi dugun munduak dituen beste funtzioetatik bere “denboratasun” bereziagatik desberdintzen da: “berritasunez” ikusi arazten du, eta horrela, gaurkotasunez betea ematen du; beste mundu irudikatu batzuetara garamatza, eta horrela denboran denboraren loturak askatzen ditu; neurri berean, etorkizunean gertatuko diren esperientzien berriemaile da, horrela, gerta litekeenaren espazio ludikoa zabalduz, iragana eta galdua berrezagutarazten du denbora galdua gordez. Komunikazioaren aldetik, esperientzia estetikoak, ikusle gisa duen estatuaren arabera, ikusleria-ri urruntasunean mantentzea onartzen dio, baina era berean, izan nahi duen edo izan behar lukeenarekin identifikatzea ahalbidetzen dio, bizitza errealean lortzeko edo soportatzeko zaila izango litzatekeena gozatzeko bidea eskaintzen dio” (Leenhardt-Józsa, 1982).

Zentzu ludikoa berez, irakurketaren posibilitate hauekin lotzen da: berritasunez ikusteko ahalbidearekin;

denborak mugatzen duen gaurkotasunarekin eteteko posibilitatearekin; etorkizuna amesteko eta iragana berreskuratzeko moduekin; irakurtzen dugunean, beste norbaiten izaeran sartzeko erekin; gure nortasuna galdu barik, beste norbait izateko jokoarekin; errealitatetik urrunduz errealitatea hobe ezagutzeko moduarekin.

Zentzu ludikoa, berriro, interpretazio bidea da.

Antón Figueruok honela idazten du zentzu ludiko horren alde:

“Aztertzen ari garen egoera batean [diglosikoan], esperientzia estetikoa gizartearen denboratasun kulturekin eta ofizialarekin bat egiteko arriskuan dago, eta honen denboratasunik ez ukatzeko, eta, beraz, “berritasunez” ez ikusteko, mundu irudikatuetara ez eramateko eta ardura zuzenetan geratzeko arriskuan dago; besterik ez bada, ezin du etorkizuna espazio ludiko gisa asmatu, eta konfliktu espazio gisa hartzeko arriskuan dago; gaurkotasunetik iragana “temps retrouvé”ren moduan sortu ordez, urrezko aro eta betiko galdutzat asmatzeko mina izateko arriskuan dago. Ondorioz, esperientzia estetikoak mutur biotatik batean galtzeko arriskua du: edo ardura zuzenetan, edo iragan mitiko ahistorikoan” (Figueruoa, 1988, 47).

Guk bizi dugun egoeran, gizarte erdibitu baten egoeran, batzuk eta besteek ez datoz bat originaltasuna eta berritasuna zer ote den adierazten. Urliarentzat berak egiten duena izango da berri eta etorkizunerako bide, Berendiak berak egiten duena dela berritzailea eta originala defendatuko du. Ez da gure helburua hemen nor den nor adieraztea, gure literaturan gertatzen diren fenomeno batzuen agerpena egitea baino, gure artean gertatu eta gertatzen diren tendentzia batzuen arrazoia eskain-

tzea, beti ere aukeratu dugun metodologiaren arabera. Lehen momentutik esan dugunez, ez gara ari idazleez, baizik eta tendentzia orokorrez. Literaturaz hitz egitea da gaurko asmoa, gure artean diren egoeren azterketa eta gero —niri ez dagokidana— idazleek ikusiko dute hemen esandakoa baliagarri zaien ala ez. Baina sistema da aztertzen duguna.

Zentzu ludikoa falta bada —eta ez dut esango gure artean zentzu ludikoaz baliatzen den bakarra Bernardo Atxaga denik— orduan zentzu epikoa sortzen da. Zentzu ludikoak dialogismoa maite du, esan nahi da, beste testuekin egiten den elkarrizketa eta gizartearen alde askorekin egiten dena, zentzu epikoa, orde, monologikoa da.

Zentzu epikoak badu, hala ere, agerpen bat nahiko garbia gaietan: gerra garaian kokaturiko gai elementuak maite ditu. Eta euskal literaturak badu alde horretatik hainbat ezaugarri bat-batean agertzen direnak.

Orokorrean harturik, Koldo Mitxelena deitzen zuen “negar haria”, gurean oso presente dagoela esan dezakegu. “Negar hari” horren definiziorik garbiena euskal poesiak euskararen galeragatik egiten zuen “planctus” ean kokatzen da. Egia da “negar hari” izen horretan hitz joko bat dagoela. Batetik negarrez “ari” zen poeta, negarka, behin eta berriro euskararen galera bere gairik kutunena bihurtuz; beste alde batetik, gai horren inguruan bizi ziren poetek batengandik bestearengana zihoan “hari” bat sortu zuten.

Iritzi erromantikoak jarraituz, euskararen galerak euskal nortasunaren galera ekarriko zukeen, zuzenean. Eta irizpide horrek bide luzea egin du euskal literatura-  
ren barnean, azken adibidea, Bitoriano Gandiagaren lirika agonikoa delarik.

Agoniaren kontzeptua, hizkuntzatik gizartearen egoerara gerturatu dela esango nuke, eta euskararen galararekin batera, orain gizartearen galera hartzen dela kontuan. “Gatazka” nagusia, hain zuzen. Biktismismo puntua, edo joera agoniko horren irizpidea lirikatik nobelara zabaldu da, eta behin eta berriro ikus dezakegu euskal kontakizunean.

Har dezagun metafora bat. Gerraren metafora, hainbat eta hainbat nobeletan karlistadetan kokatzen dena.

Bat batean etorriko dira burura karlistadetan gertatzen diren nobelak. Oso diferenteak diren idazle bi aipatzearren Juan Mari Irigoienen eleberrietan oso presente dago, gizartearen banaketa eta batasunaren nahia: *Poliedroaren hostoak*, *Babilonia*. Aro historikoa presente dago Txillardegiren nobelagintzan, *Putzu* delarik azken adibide garbia.

Baina karlistada zeren metafora da? Idazlez idazle desberdina izango da zentzua, baina zentzu nagusi bi asma ditzakegu: aurrena gaurko egoeraren metafora, gaurko garaiaz hitz egiten da beste garaia adieraziz, karlistadak aipatuz gutaz hitz egiten dugu; ondoren, gatazka beraren metafora.

Karlistadak gaurko egoera adierazteko erabiltzen direla zalantzarik gabe esango nuke. Azken batean, urre aroa ez bada ere, euskaldunen arteko gatazka baten adierazpidea delako.

Baina, karlistadak aipatzen dira irtenbide politiko baten adibide gisa? Gaurkoaren paralelo badira, zer esan bukaerari buruz? Karlistadaren bukaera gure gaurko egoeraren pareko dela esan dezakegu? Edo bestela, karlistadak bakarrik aipatzen dira gatazka bera dagoela adierazteko? Hitzarmenak —lehen karlistadaren bukaerak— ez

du balio, galerak, Foruen desagerpenak —bigarren karlistadaren bukaerak— ez du balio. Zerk balio du beraz? Zer adierazten da? Gatazka bera.

Epikaren arazora itzulirik, gogora ekarri nahi nuke Edorta Jimenezek, adibidez, Epopeia hitza bere ipuin baten izenburu gisa erabili zuela, geroago *Azken fusila* nobelaren parte izan zen ipuin baten izenburua zen.

Epikaren agerbidea gure artean egon dagoela aipatzeko zantzu batzuk besterik ez dira. Generoa gurean ere egin egiten dela garbi uzteko joera batzuk.

Poesiara igaroz, Xabier Mendigurenek “eme” gisa deskribatu zuen gure artean egin den poesia, ziuurrenik sentiberatasunaren poesia izendatu nahi zuelarik, eta “eme” deitzen bada, edozein estrukturalistari bururatzen zaio, “eme”aren kontzeptu kontrajarria “arra” dela, eta “artasuna” eta “harrotasuna” ondoan doazela epikaren bidetik, epikaren balio gisa aipatu izan direla teoria literarioaren jaiotza ordutik beretik. Ez dakit, Xabier Mendigurenen alde esan beharrekoa dela uste dut, horrenbeste esan nahi ote zuen, edo esandakoarekin hain urruti heldu, baina, lan honetan bertan hitz egin dugu isiluneei buruz, eta idazleen eta irakurleen artean sortzen diren gaizki irakurtze eta gaizki ulertzei buruz, eta interpretazio bide hau, emerren atean harraren aipamena dagoela, beharbada gure egoera diglosikoaren beste adibide bat besterik ez litzateke.

Zentzu epiko bat ere nabari dut nik azken urteetan argitaratu diren zenbait poema libururen izenburuetan, eta azpimarratzen dut izenburuetan dela batez ere agertzen joera hori.

Eta kontrajarpen baten bidez azaldu dut arazoa. Amaia Iturbidek, askotan azaldu du bere imaginarioan,

bere irudi munduan, emakumearen irudia urarekin loturik dagoela, bere egotaldian, bere isurian, bere baretasunean. Uraren aurkakoa sua da edozein imaginarioan, eta onartzen bada imaginarioa zuzen dagoela, pentsa bide da sua, orduan, berriro gizasemearekin loturik dagoela.

Behintzat, Gari Berasaluzeren *Azaro urruneko intifadak*, Xabier Aldaien *Bala zeru urdina*, Urtzi Urrutikoe txearen *Borroka galduetatik gatoz* poema liburuen izenburuetan, epikarekin loturik dauden elementu semantiko garbiak agertzen dira: errebolta, bala, borroka. Norbaitek esan dezake borroka galduak direla hor aipatzen direnak, baina idazleek baten baino gehiagotan esan dutenez, bere aurrekoek galdu dituzte borrokak, eta eurei, belaunaldi berrikoei, alegia, tokatzen zaie egoera aldatzea.

Egia da, izenburuaren ondoren, poema liburu guztiok saiatu direla sentimenduekin loturaren bat bilatzea, eta beraz, dialogismoa agertzea. Gari Berasaluzek adibidez, behin eta berriro azaldu du azaroko aipamenak zentzu bikoitza duela: alde batetik, maitasunarekin loturik dago, beste aldetik kontzientzia militantarekin. Eta, iruditzen zait bikoiztasun hori poema liburu horietan badagoela, testuaren barnean elkarrizketa bat bilatuz.



## 14. Figuroaren teoriari zenbait ohar

Orain arte hizkuntza diglosikoen literaturan gertatzen diren zenbait ezaugarri aztertu ditugu eta euskal literaturara aplikazioa egin dugu. Figuroak, bere aldetik, Galiziako literaturari egin dio aplikazio bera, eta bere teoriaren zenbait oinarri teoriko Probenzako literaturaren azterketatik datoz. Beraz, teoria sendoa da, eta ikusi dugunez, zenbait hizkuntza diglosikoen literaturatan aurkitu dezakegu. Hirutan, behintzat, bere erabilgarritasuna erakutsi du: Probenzakoan, gailegoan eta euskal literaturan. Diglosia desagertzen den heinean, zailago da aplikazioa aurrera eramatea, adibidez, Katalunian. Badirudi Kataluniako literaturan honelako ezaugarriak desagertzen ari direla, edo lehenago agertzen baziren ere, orain ez direla hain garbiak.

Teoria osoa aztertu ondoren, eta aplikazioa egin ondoren, ohar batzuk egitea pentsatu dugu, zeren puntu ilun batzuk ikusten dizkiogu teoriari. Egia esateko ohar txiki bi besterik ez dira, eta horrela teoria sakontzeko asmotan ari garela pentsatzeko bidea dugu.

## Prozesu historikoak

Badirudi neurri handi batean, diglosia eta literatura-ren artean sortzen diren loturak ezin direla beste barik aztertu historia kontuan hartu gabe.

Oraintxe bertan eta luzera handirik gabe, onartu dugu hizkuntza normalizatzen doan heinean (Kataluniaren kasua), ezaugarri batzuk desagertzen doazela. Gure kasua ere bada, zeren zenbait ezaugarri garbiagoak dira XIX. mendeko literaturan gaur egun baino, edo gaur egun motelago dirudite, edo, beste hitz batzuekin esatearren, kanonaren ertzetan agertzen diren ezaugarriak dira. Beraz, ezaugarriok prozesu historiko baten barnean kokatu behar dira.

Hori horrela bada, galdera bat proposa dezakegu: zein neurritan hemen aipaturiko zenbait ezaugarri ez ote diren literatura batek jarraitu dituen bide estetiko batzuen ezaugarri, eta ez, nahi eta nahiz ez, prozesu diglosikoarenak? Ezaugarri batzuk izaera diglosikotik datoz, ala prozesu estetiko batetik?

Azalduriko hainbat ezaugarri euskal literaturak eta literatura minorizatu guztiek jarraitu duten Erromantizismoarekin oso loturik agertzen dira, folkloreaken nagusitasuna, adibidez. Beraz, nire galdera hauxe izango litzateke: horrelako ezaugarriak zergatik gertatzen dira, hizkuntza diglosikoa delako, ala XIX. mendean erromantizismoaren bideak hartu zituelako? Noski, erromantizismoa hartu behar zuten, nazioaren alde, berezitasunaren alde egiten zuen mugimendua erromantizismoa baitzen. Baina ezaugarri horiek ez daude, adibidez, nahiz eta hizkuntza diglosikoa izan, XVI. edo XVII. mendeetan. (Errefrauekiko zaletasuna ez da berez, herrikoitasunaren aldeko joera bat. Kultura nagusia eta kultura txikia

batzen zuen lotura baten agerbidea zen errefrauak biltze-ko ahalegin hori).

Diglosikoa delako datoz ezaugarriok, ala jarraipen historiko jakina, zehatza, bat eta ez beste, egin delako?

Nire ustez, gaur egungo egoera ez da soilik gertatzen euskara egoera diglosikoan delako, baizik eta erromantizismoaren hainbat ezaugarri gure artean bizirik daudelako.

Alemaniko erromantikoek azalduko zenbait ideien agerpena gure artean oso erroturik dago. Hartzen baditugu Herder filosofoaren ideia nagusiak, gure artean gaur egun erabiltzen diren zenbaitekin parekotasuna bat batean ikusiko dugu:

- 1) Pertenentziaren ideia. Gizaki bakoitza toki batekoa da, erroak dituen tokikoa. Gizakiak bakarrik sor (zentzu artistikoan, noski) lezake bere inguruan ezagutu dituen sinboloen bidez.
- 2) Kultura batek ez du besteren bat iruntzi behar. Erroen bila abiatzen den kultura maite du.
- 3) Giza talde bakoitzak bere barnean dagoena, bere tradizioan dagoena bilatu behar luke. Herderrek azken batean hizkuntza propioaren alde egiten du.

Idea nagusiokin normala da hizkuntza minorizatuak bere hizkuntza eta bere nortasunaren alde egitea, eta hori literaturan agertzen da folkloreak eta mitoen bidez.

Erromantizismoaren azpian dagoen idealismoak bultzatzen ditu beste joera batzuk. Gaur egun ez dagoena, baina etorkizunerako amesten duguna nahasten ditugu maiz. Sabino Aranaren euskararekiko planteamenduaren azpian idealismoa zegoen: ez zuen maite zegoen euskara, baizik eta amestu zuen euskara zerutarra —logikoa omen

zena. Filologiarako joera hori, garbitasun nahia ez ote da idealismoaren aztarna? Eta, neurri berean, literaturak agertzen duen jatoriasunaren aldeko, bazterkeriaren aldeko, filologizazioaren aldeko joerak ez ote dira prozesu historiko baten agerpenak? Eta ez neurri berean egoera diglosiko baten aztarna?

Onartu behar litzateke egoera diglosiko batean, honelako jarrerak mantentzea usuago gertatzen dela, baina ezaugarriak, nire ustez, jaiotza historikoa du, ez dator izaera diglosikoagatik, eta sortu diren bezala, desagertu daitezke, prozesu luze baten ondoren, noski.

## **Hizkuntza nagusiaren periferia**

Lehen oharrean, estetika eta historia biltzen baziren teoriaren osotasuna ulertzeko, bigarren honetan berriro estetikak du tokia.

Figuroaren deskripzioan literatura nagusiak zerbait bakar eta oso balira bezala agertzen dira, esaten dugunean literatura bat normalizatua dagoela, adierazten ari gara, batez ere, lehen mailan direnak, idazle nagusiak direla bidea markatzen dutenak. Baina, ez da horrela gertatzen hizkuntza nagusiaren periferian dauden idazleekin.

Pentsa dezagun, une batez, Euskal Herrian gaztele-raz idazten duten idazleez. Gaur egun idazten dutenez, eta batez ere, literatura normalizatuaren eremuetan bigarren mailan geratzen direnez, haiek ere neurri batean hizkuntza diglosikoari eragozten zaizkien zenbait ezaugarri agertzen dute.

Batzuetan estetika zaharkituak jarraitzen dituzte, eta beste batzuetan idazkera zaharkituak, lehen mailan ez direnak. Inoiz, eta nobela historikoa idazten dutenek,

jarraitzen dute hizkeraren arkaismoaren bidea, filologizazioa, noiz edo noiz gaztelera klasikoaren imitazioa nabaria izaten zaie. Unamunoz ere, lehen puntako idazlea izan arren, esan izan da modernismoaren hizkera maila, modernismoaren idazkera modua, ez zuela ezagutu, eta horregatik, bere idazkerak itxura gogor eta sikua hartzen duela, arkaismorako tendentzia duela. Eta zenbat dira gaur egun Euskal Herrian gaztelera aritzen direnen artean Unamunoren estiloaren usaina antzematen zaienak? Edo Blas de Oterorena?

Hausnarketa laburtxo honek adierazi nahi duena, ez da horrenbestez teoriaren osotasuna gutxieste, baina garbi dago gorago aipaturiko hainbat ezaugarri ez direla soilik aplikatzen hizkuntza diglosikoetan, alderantziz, hizkuntza nagusien bigarren mailako idazleengan ere nabariak dira, nahiz eta onartu behar den hauek bere hizkuntzan lotura normalagoak dituztela beren irakurleekin, eta beraz, irakurketa orekatua izaten dela.

Zer ari ote nintzen galdetu zidan lagunari artikulu hau idazten ari nintzela esan nionean, ezaugarriak aipatzeko eskatu zidan. Buruz nekizkienak aipatu nizkion, eta berak bota zidan “Eta literatura ideologikoa dela, ezta?”. Esan nion politikoki zuzenagoa zela, eta literatura teoriarekin egokiagoa, epiko zalea izendatzea. Bai, gure literatura, eta agian diglosiko guztiak, ideologikoak dira, edo ideologiaren aurkakoak, aurka egitea ideologiko izateko beste era bat dela onartu behar badugu ere.

Artean literaturak jarraituko du bere eginkizunarekin. Gizarteak eta izakiak moldatuz, eta haiei ondare simbolikoa erakutsiz. Literaturak jarraituko du bere ibilbidea:

“Un texto literario es un agente importante en la transmisión de la cultura; en definitiva nos proyec-

ta las imágenes (identidades e identificaciones) mediante las cuales los seres humanos configuramos nuestras vidas y actitudes, que se les comunican y transmiten a las generaciones posteriores” (Zavala, 1993: 48).

## 15. Etorkizunerako biderik?

Antón Figuerok jarraitu izan du gai honi buruz pentsatzen eta bere teorian aurrera egiten. Behin eta berriro gidaliburu izan dugun honen ostean beste lan garrantzitsu bi argitaratu ditu: artikulu bat eta liburu berri bat. Irakurle interesatuak bibliografian aurkituko ditu.

Lan berri hauetan literatura gailegoa bidegurutzean ikusi du, kinka berrien artean.

Ondoren bere ustetan bete behar diren bidegurutzeak aipatuko ditugu, ohar handirik egin gabe. Hemen bai baitira zuzenak gure artean gaur diren zenbait eztabaida, eta lotura argirik ez dute behar ondoren doazen zortzi oharrok.

Figuerok idazlea kinka berrien artean ikusi du, eta zortzi ohar berriotan, nahiko garbi azaltzen du zeintzuk diren gaur egun idazlearen aurrean diren erabaki nagusiak.

Aipatu egingo ditugu eta oharrez hornitu ondoren:

1. Testuan ahal du / ezin du gaztelerarik agertu (nahiz eta horrek egiantzekotasun arazoak sortu).
2. Norma linguistikoa X izango da.

3. Garrantzitsua gailegoz idaztea da / “gailego zuzena” testu baten balio nagusia da.
4. Arau tematikoak: testuek kultura gailegoa iturri nagusi izan behar dute / ez dute izan behar.
5. Idazketak konprometitu izan behar du (aberriarekiko) / ez du izan behar.
6. Idazleak arau linguistikoak errespetatu behar ditu / ez ditu errespetatu behar.
7. Idazleak militantzia politiko jakina izan behar du / ez du zertan jarraitu behar militantzia politikorik. Idazlearen “jarrera publikoa” bere testuak onartzeko orduan esanguratsua da.
8. Idazleak ezin du gazteleraz idatzi / ahal du gazteleraz idatzi.

Formulazio horrek, zortzi oharrok, planteamendu berri baten aurrean jartzen gaituzte, desberdinak dira arazoak, literaturak nolabaiteko normalizazioa lortu duenean.

Ohar horiek beste hausnarketa bat agintzen dute, eta lortu beharrean gaude. Euskaraz dugun egoerari lotuz gero, honelako ezaugarriak aurkituko genituzke:

### *1. Testuetan ezin da gaztelerarik agertu*

Oharra loturik dago pertsonaiek nobela baten barnean agertzen duten hizkuntzarekin. Gorago ere aipatu dugu arazoa: guardi zibilak hitz egin dezake euskaraz? Gaur egun arazoa gairidurik dagoela uste dut. Baina Ramón Saizarbitoriak *100 metro* idatzi zuenean ez zegoen oso garbi. Egiantzaren izenean nobela horretan poliziek ez dute euskaraz egiten. Gaur egungo nobelagintzan, ordea, dena euskaraz emateko joera dago, nahiz eta gazteleraz, frantsesez edo ingelesez agertzen diren esaldiak.



Telebista agertu zenetik egiantzaren arazoa konpondurik dago euskal nobelagintzan (gorago esan dugunez, arazoa konpondurik dago arketipoen alorrean, pertsonaia orokorren alorrean, beste kontu bat da esperientziak indar handiz lan egiten duenean nobela batean). Euskal nobeletan euskararik ez dakitenek euskaraz egiten dute. Eta egiantzak ez du horregatik galtzen.

*2. Arau linguistikoaren arazoa ere nahiko konponduta dagoela esan dezakegu. Euskara batuaren erabiltzen da nagusiki, eta on da horrela izan dadila. Baina honen inguruan badira arazoak, edo noizbehinka bazterreko praktikak ere.*

Orokortasunean euskara batuaren nagusitasuna onartzen bada ere, Iparraldeko praktika eta Hegoaldekoa desberdina dela esango genuke. Iparraldean euskara batuaren irakurketa bat egiten dute, euskalkiari lotuagoa eta ez soilik hiztegi aldetik.

Hegoaldean euskara batuaren erabilpena formalagoa dela esaten badugu, agian zuzen ibiliko gara. Iparraldeko euskarak desberdintasunak ditu, hain zuzen ere, bertako tradizioari eusten diotelako.

Lexikoa nola aberastu? Hona hemen bigarren kategoria. Euskara batuaren lexikoa aberasteko orduan idazleek gutxi erabili izan diren euskalkietara jotzen dute, eta kasu honetan bizkaierak badu zer eskaini oraindik, Koldo Izagirreren eta Iñigo Aranbarriren lanetan ikusi daitekeenez.

Hirugarren arazo bat izango genuke Edorta Jimenezekin kontaktetan. Jakina denez, idazle honek gaur egungo Bizkaian erabiltzen diren “benetako” ahizko euskalkiaren formak jartzen ditu bere lanetako pertsonaien

ahotan, nahiz eta forma horiek arauzkoak izan ez, eta askotan agramatikalak. Esango nuke joera hori bere idazkeraren ezaugarri bihurtu duela.

Eta azkenik, euskalkietan idazten duten idazleak ere badira gure artean. Euskalkietako idazle mota bi aurki ditzakegu: Auspoa argitaletxearen ingurukoak, alde bate-tik, eta bizkaiera landuz, Labayru Ikastegiaren inguruko zenbait idazle.

Beraz, orokortasunean onartzen bada ere arau linguistikoa, baditugu forma desberdinak euskara batu horren uniformizazioa eteteko.

Honen inguruan baditugu eztabaida bi gure artean. Batetik gipuzkera-zentrismoaren aurkako joera izango litzateke, inoiz Joseba Sarrionandiari entzun diodan bezala, bestetik, euskararen kalitateari buruzko eztabaida.

Zenbait idazleren ustetan, gipuzkerak pisu zentrala hartu du euskara batuaren alorrean, horregatik pisu hori moteltzen saiatu dira. Joseba Sarrionandiaren lanetan, eta beste batzuk jarraitu duten bidea da, hala nola Juanrra Madariagak eta Abadiñoko Luis Berrizbeitiak, zubereraren aldeko joera nabaritzen da. Zuberera agertzeta gipuzkeraren indarra ahultzeko ahalegina litzateke. Beste idazle batzuk ere jarrera berbera izan dute, eta Patxiku Perurenak testu luzeak idatzi ditu horretaz.

Euskararen kalitatearen arazoa hurrengo puntuan aipatzekoa da, berez.

### *3. Literatura lanetan euskaraz idaztea nahikoa da, edo kalitatezko euskara bat eskatu behar da?*

Iratxe Gutierrezek lan handia egin du 1990. hamarkadan kontaketari buruz argitaratu diren kritikak bilduz eta aztertuz. Esanguratsua da azterketa hori: oso urriak

dira kritika txarrak, eta idazle askori buruz esaten da, euskara erraza eta irakurgarria erabiltzen dutela. Beraz, hamarkada horretako kritiko askoren ustez euskaraz idaztea balio bat da.

Hona hemen kalitatearen arazoa hurrenez hurren agerturik. Uste dut idazle zabarragoak badirela, eta badi-rela idazle estuagoak. Kalitatearen arazoa filologoek eskuetan dagoela esango nuke, eta azken urteetan kalitatearen alde asko egin dela.

a) Orain urte batzuk normalak ziren idazlearen euskara aztergai zuten kritikak, gogoan ditut Gotzon Garatek Txillardegiren lanari eskainitakoa, eta Joxerra Gartzia Laura Mintegiren lanari.

b) Gazteleraren eraginetik irteteko euskara zuzenaren prontuarioak argitaratu dira. Gotzon Garatek *Erderakadak* liburua argitaratu zuen, baina azken urteotan izan den kalitatearen aldeko liburua Ibon Sarasolarena izan da. *Euskara batuaren ajeak* ez dakit best seller-a izan den, baina nahiko eztabaida sortu ditu bere inguruan, eta kalitate baten aldeko lana dela esango nuke. Egunkari desberdinek estilo liburuak argitaratu dituzte eta Juan Gartziaeren lana ere hemendik doala esango nuke.

c) Baina arazoa ez dago garbi oraindik. Bernardo Atxagak adibidez, inoiz azaldu du bide bi daudela euskaraz idazteko, eta autoekin egindako konparaketaz baliatuz, Mercedesaren bidea deitzen zion bide estetiko eta txukunari, eta Jeeparen bidea edonorako balio zuen euskarari. Beraz, arazoa ez dago gainditua, nahiz eta idazle talde batek zuzen egiten duen kalitatezko, tradizioari loturiko euskara baten alde. Beste batzuk, ordea, entzuten dutenarekin lotuago agertzen dira, nahiz eta kalean entzuten dena ez izan beti oso euskara goratua.

#### 4. *Gai tematikoak*

Euskal Herrian kokatu behar dira eleberrien gaiak, edo New Yorkeko giroa ekarri behar al da gure nobelara?. Hemen idatzi edo New Yorkera joan behar da eleberriak idaztera. Bietatik ditugula esango nuke, Harkaitz Canok egin duen esperientziaren ondoren. Hain zuzen ere New Yorken lan egin, ea zer gertatzen den ikusteko. Ez da bakarra, Iñigo Aranbarrik Chiapasi buruz idatzi du liburu bat hangoa eta hemengoa adieraziz. Javi Cilleroren kontagintzak ere Hollywood hartzen du gaitzat, baina tokia jada ez da espazio bat, baizik eta zinema munduaren lilurak sortzen duen espazioa da bere ipuin liburuan agertzen dena. Eta ez litzateke ahaztu behar euskal editoreen azken moda, bidaia liburuak argitaratzea dela irakurlegoa liburuetara hurbiltzeko. Kokapenez hitz egiten badugu unibertsaltasuna hemengo espazioetan zein hango espazioetan lortzen da. Agian, gure artean, eta hori beste arazo bat da, kosmopolitismoa eta unibertsaltasuna nahastu egin ditugu. Kokapen espazialaz gain, Figuroak beste zerbait adierazten du: euskal kultura izan behar dute, ala ez, testuek erreferentzia gisa? Euskal kulturaren erreferentea, euskal “errealitatearen” erreferentea, nahiz eta gero “errealitateaz” oso gauza konkretua ulertzen den, izan ala ez izan da kakoa. Garbi dago euskal errealitatearen erreferentea desberdin erabiltzen dutela Aranbarrik eta Cillerok bere lanetan, nahiz eta biek Euskal Herritik kanpoko espazio kokapena erabili. Esango nuke, errealitatearen erreferente hori maite dela, nik ezagutzen dutudan irakurleen artean, nire Euskal Filologiako ikasleen artean, eta badirela euskal argitaletxeak erreferente horrekin lan egiten dutenak, eta beste batzuk, ordea, ez diote garrantzi nagusia erreferente politikoari ematen.

## *5. Idazketak konprometitu izan behar du (aberriarekiko) / ez du izan behar.*

Arazo hau oso bizirik dagoela gure artean, uste dut. Idazlearen konpromiso sozialak, eta bere militantzia politikoak garrantzi handia duela uste dut. Aberriarekiko idazleak duen konpromisoa esanguratsua da.

Azken urteotan gertatu da gure artean kanonaren aldaketa garrantzitsua: Bernardo Atxagaren irudiaren inguruan eztabaida izan da, eta bere idazketaren kalitatea ez bada zalantzan jarri, behintzat, haren ordezeko idazleak aurkeztu dira euskal literaturaren kanonean haren aurretik jarri nahiaz. Joseba Sarrionandiaren irudia indartu egin da, eta aitortu egin behar da bere irudi poetikoa argitalpen osoez lagunduta etorri dela. Koldo Izagirreraren irudiaren kanonizazio indartsua ere azken urteotako da, idazle horrek jarraitzen du, hala ere, eremu desberdinak jorratzen eta irakurleari ez dio eskaintzen irudi bakar bat: poeta gisa aritu da, narratzaile estimatua dugu, literatura pedagogikoan ere lan handia egin du.

Idazkera konprometituaz, idazkera sinbolistaz eztabaida handiak izan dira gure artean eta normala zen, azken batean XX. mendeko poesian eztabaida luzea izan baita konpromisoaren eta sinbolismoaren artekoa. Ez dakit gaur eztabaidarik ezean, konpromisoaren nagusitasuna ez ote den garaitu.

Bada horretan ere zertzelada beharrik. Gorago aipatu dugu idazle nagusi bakoitza editorial batekin loturik agertzen dela. Eta hau ez da broma, literatura sistema bihurtu den momentuko fenomeno baina. Euskal editorial nagusi bakoitzak bere idazle nagusia du, eta idazle nagusi horren eraginetan ere badago. Anjel Lertxundi ahalegin nagusirik gabe lotzen dugu Alberdania editoria-

larekin, Bernardo Atxagak lotura estuak ditu Ereinekin (eta beste alde batetik Pamielarekin), Susa eta Koldo Izagirrenen loturak argiak dira. Elkar da askotara jotzen duen editoriala eta Joan Mari Irigoien, Koldo Izagirrenen kontaketa (Agirrenen saga), eta Sarrionandiaren eta Joxe Austin Arrietaren lanak argitaratu ditu. Eta horrez gainera, ez da soilik arazo estetikoak, ideologikoak ere bada neurri handi baten.

Baina garbia dena beste zera da, abertzalea izan ez bada idazlea, arazoak dituela bere burua behar bezala agertzeko. Eta bestela, Mario Onandiaren kasua aipa genezake. Idazle honen kasua berezia da, memoria urria dugulako, eta aspaldi euskaraz nobelak argitaratu gabe bizi delako. Onandiaren kasuan, agian, arazo bi nahastu dira: ideologikoak alde batetik, eta traiektoria etetea, bestetik. Ideologia alde batera uzten badugu ere, traiektoria eten egin duten idazleen kasua nahiko tristea da. Gogoan dut, adibidez, Marijo Kerexetaren poema liburuaren kasua. Ederra da liburua, baina isolaturik agertzen da. Beste horrenbeste gertatzen da Yolanda Arrietaren *Jostorratza eta haria* nobela bakar eta ederrarekin. Baina hau, berez, beste gai bat da. Sistemak, literaturak ez bezala, idazlearen iraunkortasuna eskatzen du, idazleak epe labur batean merkatuan zerbait jarri dezala eskatzen du.

## ***6. Idazleak arau linguistikoak errespetatu behar ditu lez ditu errespetatu behar.***

Idazleak hizkuntzarekiko izan dezakeen askatasunaz gorago egin dugu hitz, eta hango ondorioak baliagarriak dira kasu honetan. Idazleak izan dezakeen askatasuna loturik dago bere estetikarekin, edo beste era batez adierazteko tradizioarekiko duen atxikimenduarekin edo

errealismo baten izenean egin dezakeen entzuten den euskararekiko loturarekin. Bide bi egon dira azken urteotako literaturan. Edo tradizioa guztiz jarraitu edo, esperimentazioaren izenean, askatasunaren alde egin. Behar bada egon da azken bide hau, abangoardia gutxiago estimatzen den neurrian gutxiago maite delarik, baina, esperimentazio linguistikoa eta gehiago tradizioaren eta arauai egiten zaien lotura. Baina aldiak daude horretan ere, eta batez ere idazle desberdinak, eta bakoitzak bere joera du.

### *6. Idazleak militantzia politiko jakina izan behar du / ez du zertan jarraitu behar militantzia politikorik.*

Militantzia ez bada ere jarraitzen den irizpide bakarra, militantziak bere garrantzia duela esango nuke. Eta ez bakarrik era bateko irakurleak ditugula, edo euskaraz irakurtzen duen jende asko “ezker abertzale”aren aldean kokatzen delako, baizik eta argitalpen inguruan egiten den kritika ere horrelakoa delako, eta kritika hori argitaratzen duen komunikabidea ere aldeko delako. Beste batzuk esango dute, ordea, lehiaketa literarioak ez irabazteko, edo galtzeko, balio duen jarrera dela hau. Eta, nonbait, ez zaie arrazoirik faltako.

Idazlearen “jarrera publikoa” bere testuak onartzeko orduan esanguratsua da. Zalantzarik ez horretan. Idazlearen portaera publikoak eragin handia du Euskal Herrian lan literarioa juzkatzeko orduan.

### *7. Idazleak ezin du gazteleraz idatzi / ahal du gazteleraz idatzi.*

Gai honetan ere jarrerak ugariak dira. Uste dut badagoela iritzi orokorra gazteleraz —beste erdara batean—

hobe dela ez idatzi esaten duena. Euskal idazleari Euskal Herrian literatura euskaraz soilik idaztea eskatzen zaio. Baina horretan ere prozesu eta garapen desberdinak dira. Noizbait norbaitek esan du ez zaiola tokatzen euskal idazleari obraren bat gazteleraz ematea euskaraz eman gabe lehenago, ondoren berak horrenbeste egiteko, gazteleraz euskaraz baino lehenago argitaratu, alegia. Ezagutu ditut euskal idazle elebakarrak euskal aldizkarietan gazteleraz argitaratzen, eta eranskin bereziak egin zizkionten gainera. Ezagutu ditut euskal idazleak Euskal Herrian gazteleraz eginez gero euskal senaren aurka joatea dela esaten zutenak. Ezagutu ditut idazleak literaturaren tasuna hizkuntzaren gainetik jartzten eta beraz literaturaren izaera hizkuntzaren gainetik defendatzen.

Ezagutu ditut, azkenez, euskal idazle batzuk, literatura ere, poesia zuzenago, gazteleraz eta euskaraz, “naturaltasunez” esaten duten bezala, idazten eta argitaratzen. Pili Kaltzada eta Jose Luis Padronen kasuak bereziak dira gure panoraman. Lehenak euskaraz eta gazteleraz idatzitako poemak argitaratu zituen liburu bakarrean, Padronek, ordea, euskaraz argitaratu du poesia, gazteleraz argitaratu duen moduan, nahiz eta sona handiagoa euskaraz lortu duela esan behar den.

Euskaraz idazten duten eta gazteleraz idazten dutenen arteko loturak ez dira samurrak Euskal Herriko Hegoaldean, behintzat. Elkar ezagutzeko zubiak egin badira ere, “Herri bat, hizkuntza bat” lema defendatzen dutenak ez daude oso pozik egoerarekin. Inoiz entzun dut esaten Euskal Herrian gazteleraz idazten dutenak Euskal Herritik kanpo argitaratu beharko lituzketela bere obrak, eta hemen diren laguntzak erabili ez, eskatu ez.

Euskal Administrazioaren jarrera orekatu antzekoa izan bada ere urteotan, egia da euskal literaturak sistema



bat lortu duela, batez ere eskolan sartu delako, eta ez duela horrelakorik lortu hemen gazteleraz —edo frantsez— idazten duenak, ez dela eskolan sartu literatura hori, alegia.

Agian, diferente juzgatzen dira literatura eta beste arloak. Adibidez, ez da gaizki ikusten kazetaritza —noiz edo noiz— gazteleraz egitea. Baina literaturak oraindik sakrotasunaren itxura du. Eta gutxi dira euskaraz eta erdaraz ari diren idazleak Euskal Herrian. Behar bada aipatu beharko litzateke gero eta idazle gehiago direla gazteleraz aritu arren euskaraz ere badakitenak, hizkuntza hau literatura egiteko erabili ez arren

Beraz, erromantizismoaren joera nagusiak —“hizkuntzak sortzen du literatura”— oraindik bizirik dirau gure artean. Eta horrela izan dadila.

Iris Zavalak dioen bezala:

“Un texto literario es un agente importante en la transmisión de la cultura; en definitiva nos proyecta las imágenes (identidades e identificaciones) mediante las cuales los seres humanos configuramos nuestras vidas y actitudes, que se le comunican y transmiten a las generaciones posteriores” (1993: 48).

## Bibliografía

- EVEN-ZOHAR, Itamar (1990): "Polysystem Theory". *Poetics Today*, 11, 1, 1-96.
- (1999): "Factores y dependencias en la cultura. Una revisión de la teoría de los polisistemas" in *Teoría de los polisistemas*. Arco. Madrid, 23-52.
- FIGUEROA, Antón (1988): *Diglosia e texto*. Xerais, Vigo.
- (1995): "Literatura, sistema e lectura". *Anuario de Estudos Galegos, 1994*, 97-107.
- (1996): *Lecturas alleas. Sobre das relacións con outras literaturas*. Sotelo Blanco. Santiago de Compostela.
- GONZALEZ FERNANDEZ, Helena. *Literatura galega de muller. Unha visión sistémica..* (Argitaragabea).
- LEENHARDT, Jacques; JOZSA, Pierre (1982): *Lire la lecture*, Le Sycomore, Paris.
- VILAVEDRA, Dolores (1999): *Historia da literatura galega*.Galaxia. Vigo.

WHITE, Linda (2000): “Escritoras vascas del siglo XX. Aproximación histórica”, in ZAVALA, I.: *Breve historia feminista de la literatura española (En lengua catalana, gallega y vasca)*, VI, Antrophos, Barcelona, 265-283.

ZAVALA, Iris (1993): “Las formas y funciones de una teoría crítica feminista. Feminismo dialógico”. *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua castellana) I. Teoría feminista: discursos y diferencias*. Antrophos /Comunidad de Madrid. Barcelona. 13-76.